# LEADER 2026 LAGUNTZA DEIALDIA

mendinet
TOKIKO EKINTZA TALDEA · GRUPO DE ACCIÓN LOCAL

Granja Modelo z/g Arkaute 01192 Araba

945 410 309

Webgunea: MENDINET Landa garapenaren aurrerapenerako Elkartea

Helbide elektronikoa: mendinet@mendinet.eus

# AURKIBIDEA

1. oinarria..- Xedea eta izaera ....3
2. oinarria..- Eremu geografikoa ....3
3. oinarria..- Baliabide ekonomikoak ....4
4. oinarria..- Onuradun izateko betekizun orokorrak ....4
5. oinarria..- Eskaerak, agiriak eta horiek aurkezteko epea ....8
6. oinarria..- Laguntzen kudeaketa ....11
7. oinarria..- Laguntzaren zenbatekoa ....13
8. oinarria..- Ebazpena ....14
9. oinarria..- Onuradunen betebehar orokorrak ....15
10. oinarria..- Gauzatzeko gehieneko epeak ....16
11. oinarria..- Dirulaguntza jaso duen jardueraren kontratazioa ....17
12. oinarria..- Laguntzen justifikazioa ....18
13. oinarria..- Dirulaguntza ordaintzea ....19
14. oinarria.- Aurrerakinak ....19
15. oinarria..- Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea ....20
16. oinarria..- Atzera egitea eta uko egitea ....21
17. oinarria..- Ez-betetzeak ....21
18. oinarria..- Estatuaren laguntzak eta bateragarritasunak ....22
19. oinarria .– Datuen babesa ....23
I. NEURRIA: EKINTZAILETZA ETA BARNE EKINTZAILETZA ....24
20. oinarria..- Neurriaren deskribapena ....24
1. lerroa. Enpresa berriak sortzeko babesa: ....24
2. lerroa. Proiektu ekintzailea garatzeko laguntza ....24
21. oinarria.- Pertsona onuradunak ....25
22. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak ....25
23. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa ....26
24. oinarria.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak ....28
1. lerroa ....28
2. lerroa ....28
Diruz lagun ez daitezkeen gastuak ....29
25. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak ....29
26. oinarria.- Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa ....29
27. oinarria.- Ordaintzeko eta justifikatzeko modua ....31

II. NEURRIA: NEKAZARITZAKOAK EZ DIREN ENPRESETAN ETA NEKAZARITZA DIBERTSIFIKAZIOAN INBERTSIOAK EGITEN LAGUNTZEKOA ........ 33

28. oinarria.- Neurriaren deskribapena ........ 33

29. oinarria.- Pertsona onuradunak ........ 34

30. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak ........ 34

31. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa ........ 35

32. oinarria.- Diruz lagun daitezkeen gastuak ........ 36

33. oinarria.- Balorazio irizpideak ........ 38

«Nekazaritza dibertsifikazioan» inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak ........ 39

«Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak 41

34. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak ........ 44

35. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa ........ 44

1. lerroa: Nekazaritza dibertsifikazioan egindako inbertsioak ........ 45

2. lerroa: «Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioak ........ 45

36. oinarria.- Justifikatzea eta ordaintzea ........ 46

III. NEURRIA: BESTEREN KONTURA KONTRATATZEKO NEURRIA ........ 48

37. oinarria.- Laguntzaren deskribapena ........ 48

38. oinarria.- Pertsona onuradunak ........ 48

39. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak ........ 48

40. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa ........ 49

41. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak ........ 50

42. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa ........ 50

43. oinarria.- Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea ........ 51

IV. NEURRIA: GUNEAK GAITZEKO NEURRIA ........ 52

44. oinarria.- Laguntzaren deskribapena ........ 52

45. oinarria.- Erakunde onuradunak ........ 52

46. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak ........ 53

47. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa ........ 53

48. oinarria.- Diruz lagun daitezkeen gastuak ........ 54

49. oinarria.- Balorazio irizpideak ........ 56

50. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak ........ 58

51. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa ........ 58

I. ERANSKINA ESKU HARTZEN DEN LURRALDEKO UDALERRIEN ZERRENDA ........ 61

II. ERANSKINA: DEFINIZIOAK ........ 88

# 1. oinarria..- Xedea eta izaera

Deialdi honen xedea da Toki Garapen Parte Hartzaileko Estrategian (LEADER ikuspegia) zehaztutako helburuak betetzera bideratutako dirulaguntzen deialdia egitea. Deialdia Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren 2023ko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez onetsi zen, 2023-2027 aldirako Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoan (NPBPE) zehaztutakoaren arabera (plana Batzordearen 2022ko abuztuaren 31ko 6017 Erabakiaren bidez onartu zen), eta gerora lau aldiz aldatu zen C (2023) 5746, C (2024) 6133, C (2025) 5713 eta C (2025) 8557 erabakien bidez.

Honako hauek dira deialdi honen xede neurriak:

I) Ekintzaileetzarako eta barne ekintzaileetzarako neurria.

II) Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria.

III) Besteren kontura kontratatzeko neurria.

IV) Guneak gaitzeko neurria.

Deialdi honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli behar ez diren horietakoak izango dira.

# 2. oinarria..- Eremu geografikoa

Aplikazio eremu geografikoak I. Eranskinean identifikatu eta jasotako lurralde osoa hartuko du barne.

Bestalde, Partzuergoak landa eremutzat hartzen direnez, eta horien ezaugarri eta berezitasunengatik, gune horietan egingo diren jarduera ekonomikoko proiektuak babestuko dira. Partzuergoek bere mugape propioa dute, eta bakoitza unitate bakartzat hartuko da. Entitate horiek ez dute erroldatutako populaziorik; hortaz, adierazleak ezin izan dira aplikatu gainerakoetan bezala, eta, beraz, V2 zaurgarritasun-mailako eremutzat hartuko dira proiektu horiek aztertu ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoan Nekazaritza Politika Erkidearen 2023-2027 Plan Estrategikoa ezartzeko eta landa-eremuen karakterizazioa finkatzeko den maiatzaren 28ko 66/2024 Dekretuaren 90.d) artikuluaren arabera.

I. eranskinean jasotako erakunde bakoitzaren muga geografikoak kontsultatu ahal izateko, GeoEuskadi bisorean (GeoEuskadi bisorean) sartu, eta geruza hauek aktiba daitezke:

1. Nekazaritza
2. 2023-2027ko landa karakterizazioa

- Zure erakundea landa eremukoa den egiaztatzea "Landa eremuen oinarrizko mapa" geruzarekin. Landa erakundeak berde ilunean agertzen direnak dira.
- Zure erakundea landa eremukoa bada, kontsultatu kalteberatasun maila "Sustapen eta dibertsifikazio ekonomikoa" geruzarekin.

LEADER eremuak bere baitan biltzen ditu "Arreta Bereziko Eremu" gisa sailkatutako udalerriak (K1) eta K2, K3 eta K4 gisa sailkatutako landa erakundeak. Azken kasu horretan (K4) hiri entitateetako landa eremuak baztertuta geratzen dira ("Landa eremuen oinarrizko

mapa" geruzaren kolore berde argia).

# 3. oinarria..- Baliabide ekonomikoak

Deialdiari lotutako baliabide ekonomiko guztien banaketa (6.391.354,00 €), osorik Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargura eman beharrekoa, Batzordeak onartutako finantzaketa gehigarri gisa:

| Laguntza mota | 2026 | 2027 | GUZTIRA |
|---|---|---|---|
| *Ekintzailetza eta barne ekintzailetza* | 174.155,00 | 625.845,00 | 800.000,00 |
| *Nekazaritzakoak ez diren enpresetarako eta nekazaritza dibertsifikaziorako inbertsioak* | 1.043.044,00 | 3.748.310,00 | 4.791.354,00 |
| *Besteren kontura kontratatzea* | 43.540,00 | 156.460,00 | 200.000,00 |
| *Guneak gaitzea* | 130.615,00 | 469.385,00 | 600.000,00 |
| **Guztira** | **1.391.354,00** | **5.000.000,00** | **6.391.354,00** |

Eman beharreko laguntzen guztizkoak ez ditu gaindituko indarreko legeriaren araberako aurrekontu aldaketak onartuz gero eguneratzeak eragindako baliabideak edo zenbatekoa. Gehikuntza hori gertatzen bada, laguntzak emateko prozedura ebatzi aurretik, Elikadurako eta Landa Garapeneko sailburuordearen dagokion ebazpena emango da.

# 4. oinarria..- Onuradun izateko betekizun orokorrak

Laguntza hauen onuradun izango dira: pertsona fisiko edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, nortasun juridikoa dutenak edo ez dutenak, edo edozein motatako unitate ekonomiko edo ondare bereizia dutenak, baldin eta, nortasun juridikorik ez izan arren, aurreikusitako proiektuak eta jarduerak egin baditzakete. Azken kasu horretan, onuradun gisa hartuko dira proiektu eta jarduera horietan parte hartzen duten pertsona fisiko edo juridiko guztiak, pribatuak edo publikoak, eta oinarri hauetan eta horiek garatzeko arau aplikagarrietan jasotako betekizun eta baldintza guztiak bete beharko dituzte.

Legezko[1] betebeharrez gain, aurreko apartatuan adierazitako pertsonek eta proiektuek hauek bete beharko dituzte:

- Amaituta ez egotea diruz laguntzekoak diren gastua eta inbertsioa, eskabidea aurkezten denean. In situ egindako ikuskapen baten bidez egiaztatuko da egoera hori

[1]Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea, Emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzko urriaren 13ko 902/2020 Errege Dekretuan jasota daudenak, bai eta laguntza-lerro bakoitzerako berariaz ezarrita daudenak.

II. eta IV. neurrien «inbertsioetarako/gastuetarako»; gehienez ere, 15 laneguneko epean egingo da laguntza-eskaera sartzen denetik aurrera, eta kontrol-akta bat egingo da ziurtatzeko eragiketa ez dela fisikoki osatu edo osorik gauzatu, dagozkion ordainketak egin diren ala ez kontuan hartu gabe.

Lekuan bertan egindako ikuskapen bisual baten bidez ikusi ezin diren gastuen kasuan, alderdi horiek justifikazioa egiten den unean faktura bidez egiaztatuko dira. Espedientean jaso beharko dira laguntza eskaera aurkeztu ondorengo data daukan gastuaren egiaztagiriak.

Aipatutako 15 eguneko epea luzatu ahal izango da Landa Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendariaren ebazpen bidez, salbuespen gisa, eskaera bolumenaren eta zerbitzuaren beharren arabera.

- Itzultze prozeduretako edo zehapen prozeduretako kantitate zehatzen ordainketari dagokionez egunean egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak edo haren mendeko erakundeek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan. Obligazio horien ordainketak egunean dituztela ulertuko da, baldin eta zorrak geroratuta eta zatituta badaude, eta, gainera, gaineratutako zor, interes eta gastu guztiak estaliko dituen bermea eratu bada.
- Enpresa krisialdian ez egotea, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu laguntzei buruzko zuzentarauetan ezarritako definizioaren arabera (2014/C 249/01).
- Edozein administrazio publiko edo erakunde publiko zein pribatutatik dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo bestelako baliabide ekonomikorik eskatu duen edo ez, jaso duen edo ez jakinaraztea, diruz lagun daitekeen gastu bererako.
- Berreskuratze agindu baten menpe ez egotea, Europako Batzordeak aurretiaz erabaki badu laguntza bat legez kanpokoa eta barne merkatuarekin bateraezina dela.
- Pertsona juridikoen kasuan, legez eratuta edo horretarako bidean egotea, eta dagokion Erregistroan inskribatuta edo inskribatzeko bidean egotea.
- Nekazaritzaren arloan jarduten duten profesional, enpresa edo bestelakoen elkarte edo erakundeak badira, emakumeen presentzia orekatua izatea zuzendaritza organoetan.
- 50 langile baino gutxiagoko enpresak badira, Soldata Erregistroa edukitzea.

Indarrean dagoen legediaren[2] arabera, ezin izango dira onuradun izan egoera hauetako batean dauden entitateak:

a) Laguntza edo dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galtzea dakarren epai irmo bidez kondenatua izatea, honako delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebarikazioa, funtzionario eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza delituak.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzeko eskaria egin badute; edozein prozeduratan kaudimengabetzat jo badituzte; hartzekodunen konkurtsoan

[2] 20/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzekoa, 13. artikulua.

deklaratuta badaude, salbu eta eraginkortasuna hitzarmen bidez bereganatu badu; epailearen esku-hartzearen menpe badaude edo legediaren[3] arabera desgaituta badaude, hartzekodunen konkurtsoa kalifikatzeko epaian finkatutako desgaitze-aldi hori oraindik amaitu gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako kontraturen bat ebazpen irmo bidez indargabetu zaienak, errudun deklaratua izan den arrazoiagatik.

d) Pertsona fisikoa, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen legezko ordezkaritza dutenak sartuta egotea indarreko legean[4] aurreikusitako bateraezintasun-araubidearen kasuren batean, edo aipatutako legerian[5] arautako hautapen bidezko edozein kargu izatea, legeria horretan edo gai horiek arautzen dituen autonomia-erkidegoko araudian ezarritako baldintzetan.

e) Egunean ez izatea indarrean dauden xedapenek[6] ezarritako zerga-betebeharrak edo Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruko dirulaguntzak itzultzeari dagozkion betebeharrak ere.

f) Egunean ez izatea dirulaguntzak[7] itzultzeko betebeharrak, bai eta Euskadiko Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruko dirulaguntzak itzultzeari dagozkion betebeharrak ere.

g) Epai irmo bidez zigortua izatea, eta, ondorioz, dirulaguntzak lortzeko aukera gabe geratzea. Zehatzago esanda, pertsona juridikoren bat zigortua izaten bada sexu diskriminazioagatik edo gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazio legeriaren edo Zigor Kodearen arabera, pertsona juridiko hori ezin izango da dirulaguntzen onuradun izan zigorra betetzen duen denboran.

h) Zehatuta egotea legerian[8] aurreikusitako arau-hauste astun edo oso astunagatik, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak gauzatu eta zehapena ordaindu arte.

i) Desgaitasuna duten pertsonentzat legez gorde behar den lanpostu kuota ez betetzea eta kuota betetzeko neurri alternatiboak martxan jarrita daudela egiaztatzen duen agiririk ez aurkeztea.

---

[3] 22/2003 Legea, uztailaren 9koa, Konkurtsoari buruzkoa
[4]Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateraezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legea, eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea
[5]5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzkoa.
[6] Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren arabera (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
[7] Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren arabera (zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa).
[8]Hondakinak eta Lurzoru Kutsatuak arautu eta Ekonomia Zirkularra bultzatzeko apirilaren 8ko 7/2022 Legea, edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legea.

j) LGTBIfobia egin, bultzatu edo sustatu izana, bihurketa terapiak sustatzea edo egitea barne.

k) Ezingo dira onuradun izan legedia[9] aurreikusitako taldeak, baldin eta haien kideetako batek aurreko apartatuan adierazitako debekuren bat badu.

l) Dirulaguntzak jasotzeko debekuek honako enpresa hauei ere eragingo diete: horiek zuzentzen dituzten pertsonak edo beste inguruabar batzuk direla-eta, pentsa badaiteke –eraldaketa, bat egite edo ondorengotzaren ondorioz– beste enpresa batzuen jarraipena edo deribazioa direla, eta horietan ere pertsona edo inguruabar horiek gertatu badira.

m) Ezin dira inola ere deialdi honetan araututako dirulaguntzen onuradun izan legerian[10] aurreikusitako debeku-kausetan sartuta dauden elkarteak.

n) Era berean, ezingo dira onuradun izan inskripzio-prozedura administratiboa eten zaien elkarteek ez-zilegitasun penalaren zantzu arrazionalen ondorioz, legedian[11] xedatutakoa aplikatzeko, harik eta dagokion erregistroan inskribatzea ahalbidetzen duen ebazpen judizial irmoa eman arte.

o) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetarako, eskatzaileak merkataritza eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen aplikazio eremuan sartzen diren subjektuak baino ez direnean, ezingo dira onuradun izan lege horretan aurreikusitako ordainketa epeak betetzen ez dituzten enpresak.

Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkez dezaketen sozietateek egiaztatuko dute hori, lege honen Erregelamenduaren 26. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Kontabilitateko araudiaren arabera galdu-irabazien kontu laburtua aurkeztu ezin duten sozietateek ordaintzeko legezko ordainketa epeak betetzen dituztela egiaztatu behar dute, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatutako auditore batek emandako ziurtagiriaren bidez. Ziurtagiri horrek kontuan hartuko du enpresa bezeroaren ordainketen benetako epea, enpresa hornitzaileak aldez aurretik kobratzeko edozein finantzaketa alde batera utzita.

b), d), e), f) eta j) puntuetan jasotako debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta bere horretan iraungo dute kasu bakoitzean zehaztutako inguruabarrak mantentzen diren bitartean.

a), g), h) eta i) puntuetan jasota dauden debekuak automatikoki hartuko dira aintzat, eta epai edo ebazpen irmoak ezarriko du debekuaren hedadura zein den. Halakorik ez badago, debekuaren hedadura erregelamenduz erabakitako prozeduraren bidez ezarriko da, baina ezingo du bost urte baino gehiago iraun, epai irmorik ez badago.

c) letran ezarritako debekuaren egiaztapena eta irismena legerian[12] ezarritakoaren arabera zehaztuko da.

---

[9] Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, 11.3 artikuluan, bigarren paragrafoan.
[10] 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena, 4. artikulua, 5. eta 6. apartatuak.
[11] 1/2002 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Elkartzeko Eskubidea arautzen duena, 30.4. artikulua.
[12] Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 71 d) artikulua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

Pertsona onuradun izatea galarazten duten debeku egoeretan ez daudela frogatzeko, bide hauek dituzte pertsona edo erakunde horiek: lekukotza judiziala, ziurtagiri telematikoak edo datu transmisioak, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera, herritarrentzako arreta integral eta multikanala eta bitarteko elektronikoen edo ziurtagiri administratiboen bidez zerbitzu publikoetarako sarbidea arautzen duena, kasuen arabera, eta dokumentu hori agintari eskudunak eman ezin duenean, administrazio agintaritza edo notariotza publiko batean egindako erantzukizunpeko adierazpen batekin ordezkatu ahal izango da.

## 5. oinarria..- Eskaerak, agiriak eta horiek aurkezteko epea

Bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztuko dira eskabide guztiak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan: https://www.euskadi.eus/hasiera, legedian[13] xedatutakoa betetzeko.

Eskaerak aurkezteko, eredu normalizatua erabili beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoena. I, II, III eta IV. neurrietan araututako laguntza lerro bakoitzari pertsona interesdunek nahitaez erabili beharreko eskaera eredu zehatz bat dagokio:

- LEADER 2026 Programa I. neurria - Ekintzailetzarako eta barne ekintzailetzarako neurria
  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050937
- LEADER 2026 Programa II. neurria - Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko neurria
  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050938
- LEADER 2026 Programa III. neurria - Besteren kontura kontratatzeko neurria
  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050939
- LEADER 2026 Programa IV. neurria - Guneak gaitzeko neurria
  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050940

Eskaeraren ondorengo izapideak elektronikoki egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan sartu beharko da, «Nire karpeta» atalean: https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu/

Eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak, justifikazioak eta gainerako agiriak izapidetzeko moduari buruzko zehaztasunak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan daude eskuragarri.

[13]Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 15.1.a) artikulua.

Eskaera ordezkari baten bitartez egiten bada, herri administrazioen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 5. eta 6. artikuluetan xedatutakoaren arabera egiaztatu beharko da ordezkaritza, ahalordeen erregistro elektronikoaren bitartez: https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-sede/eu/

Zentzu horretan, eta deialdi honen esparruan, ordezkaritza egiaztatuta dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatuta badago (https://www.euskadi.eus/ahalordeen-erregistro-elektronikoa/web01-egoitza/eu/). Ordezkaritza erregistro horretan inskribatuta ez badago, borondatezko ordezkaritza emateko inprimaki normalizatua betez (https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/eskabidea/borondatezko-legezko-ordezkaritza-egilestea-inprimaki-normaldua/) edo zuzenbidean onartutako beste edozein modutara egiaztatu beharko da ordezkaritza.

Eskaerari honako agiri hauek erantsi beharko zaizkio:

- Hirugarrenaren alta, baldin eta azken bost urteetan Eusko Jaurlaritzari beste laguntzarik eskatu ez bazaio edo lehen aurkeztutakoa aldatu nahi bada. Elektronikoki izapidetu ahal izango da dagokion zerbitzuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan eskuragarri dagoen zerbitzuaren bidez alegia: https://www.euskadi.eus/hirugarrenaren-datuen-aldaketa/web01-tramite/eu/. Gainerako izapideetarako bezala, izapidetze elektronikora behartuta dauden pertsonek eta erakundeek ere zerbitzu hori erabili beharko dute hirugarrenaren alta lortzeko. Pertsona juridikoek ahalorde eskritura, edukiz gero, entitatearen eratze eskritura eta estatutuak aurkeztu beharko dituzte, betiere dagokien erregistroko zigiluarekin.

- Enpresak:
    - Eratze eskritura + Estatutu sozialak + Dagozkion erregistro publikoetako inskripzioa.

    - Hala badagokio, sozietateen gaineko zerga (200 eredua), mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Europako Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko Gomendioan xedatutakoa betetzen dela egiaztatzeko.

- Nekazaritza dibertsifikatzeko neurriak eskatzen dituzten enpresak:
    - Zuzendaritza-organoaren plantilla eta osaera jasotzen dituen dokumentua, sexuaren arabera bereizita.
- Lerro bakoitzeko zehaztu diren betekizun orokorrak eta zehatzak betetzen direla jasotzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
- Berdintasun Plana, 50 langile baino gehiago dituen enpresa bada.

Zuzendaritzak automatikoki bereganatuko du zerga betebeharren, Gizarte Segurantzaren, NAN identitatearen, errolda ziurtagiriaren eta ekonomia jardueren gaineko zergaren (EJZ) jakitun dela adierazten duen akreditazioa. Dena den, eskatzaileak dokumentazio hori ez

aurkeztea erabaki ahal izango du, eta, horretarako, adierazitako dokumentazioa[14] aurkeztu beharko du

Legedia[15] betetzeko, eskatzaileek administrazio honetan edo beste edozein administrazio publikotan aurkeztu badute eskatutako dokumentazioa, eta aldaketarik ez dela egin berariaz adierazten bada, ez dute aurkeztu beharko dokumentazio hori, erreferentziazko legediarekin[16] bat etorriz.

Alabaina, dokumentu horiek noiz eta zer administrazio-organotan aurkeztu dituzten adierazi beharko dute. Prozedurak eskatzen dituen datu eta dokumentuak kontsultatu edo bilduko eta egiaztatuko ditu Administrazioak, eta ez da interesdunen adostasunik eskatuko legedian[17] jasotako kasuetan.

Dirulaguntza-eskaera aurkezteak berarekin dakar eskatzaileak baimena ematea landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzak zuzenean jaso dezan beste edozein administrazio publikok egindako dokumentazio guztia[18].

Dena den, pertsona interesdunak horren aurka egon daitezke. Hala bada, baimena ez emateko arrazoiak argi eta garbi aurkezteko eskatuko zaie, eta tratamenduaz arduratzen denak aztertuko ditu arrazoiak. Behin baimena ematearen aurka azalduta, pertsona interesdunek agiriak aurkeztu beharko dituzte, eta eskaera jasoko duen organoak haiek egiaztatzeko ahalmena izango du.

Eskabidea nahi den hizkuntza ofizialean aurkeztu ahal izango da, eskatutako dokumentazioarekin batera. Era berean, laguntzen eskaeratik datozen jarduketetan, eta prozedura osoan, entitate eskatzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da, eta aldatzea eskatu ahalko du prozeduran zehar, legedian[19] xedatutakoaren arabera.

Proiektu baten fase bat eskatzen bada, eskaeraren tituluan inbertsioaren xede den faseari erreferentzia egin beharko zaio, eta dokumentazioak bat etorri beharko du adierazitako fasearekin.

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, deialdi hau Mendineten webgunean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian ere argitaratuko da deialdia.

Eskabideak ezarritako betekizun guztiak betetzen ez baditu, interesdunari eskatuko zaio hutsa zuzentzeko edo beharrezko agiriak eransteko jakinarazten zaionetik hamar egun balioduneko epean; halaber, adieraziko zaio horrela egin ezean atzera egin duela ulertuko

---

[14] Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari buruzkoa baita.

[15] Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 9. artikulua.

[16] Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua, 3. paragrafoa.

[17] Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 72.1 artikulua.

[18] Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28. artikulua, 2. paragrafoa.

[19] Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legea, eta Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 10. artikulua.

dela[20], hirugarren baten altaren kasuan izan ezik, aldez aurreko ebazpena eman beharko baita legeriaren[21] arabera.

Edonola ere, beharrezkoak diren bestelako argibide eta/edo agiri osagarriak eskatu ahal izango zaizkio eskatzaileari, aurkeztutako eskaeran adierazitakoa behar bezala ulertzeko, ebaluatzeko eta eskaera izapidetzeko.

# 6. oinarria..- Laguntzen kudeaketa

Landa Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaritza izango da programa modu efizientean, eraginkorrean eta egokian kudeatzeko arduraduna. Dena den, kudeaketa horretako zenbait fase «Mendinet landa garapenaren aurrerapenerako elkarteari» bideratuko zaizkio

Oinarri arautzaile batzuk onartzen dituen partaidetzazko toki-garapeneko estrategiak eta tokiko ekintza-taldeak hautatzeko 2023ko maiatzaren 9ko Aginduaren IV. eranskinean daude jasota kudeatzeko prozedurari buruzko arau orokorrak; agindu horri beste idazketa bat eman zaio Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2025eko maiatzaren 21eko Aginduaren bidez.

Deialdi honetan araututako laguntza lerro bakoitza esleitzeko prozedura norgehiagoka izango da.

Eman beharreko hasierako laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, aurkeztutako proiektuak konparatuko dira, eta laguntza mota bakoitzerako zehaztu diren irizpideak eta balorazioa aplikatuko zaizkie.

Horren ondoren, 3. oinarrian jasotako laguntza mota bakoitzeko aurkeztutako proiektuen zerrenda egingo da, puntu gehien duenetik puntu gutxien duenera ordenatuta edo, hala badagokio, zehaztutako lehentasun sistemaren arabera. Inbertsio-neurriari dagokionez, lehentasuna emango zaie nekazaritzaren dibertsifikaziorako proiektuei gainerakoen aurrean. Gero, esleitu beharreko laguntzen zenbatekoa zehaztuko da, adierazitako ordenari jarraituz. Zerrenda bakoitzeko azken laguntzari dagokionez, proposamena diru kantitate erabilgarria baino handiagoa bada, ez da laguntzarik emango, eta beste laguntza mota batzuetara bideratutako funtsak handituko dira kantitate horrekin, premien arabera.

Edonola ere, aurreko paragrafoko araua aplikatzean lortzen den zenbatekoa laguntza eskaeran zehaztutakoa baino handiagoa bada, eskaeran zehaztutako zenbatekoa emango da.

Lau laguntza neurrietakoetako bati dagokion kopurua agortzen ez bada, soberakina gainerakoen artean banatu ahal izango da, lehentasun ordena honetan:

1. Ekintzailetza eta barne ekintzailetza
2. Guneak gaitzea
3. Inbertsioak (dibertsifikazioa nekazaritzan eta nekazaritzakoak ez diren enpresetan)

[20] Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua.
[21] Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21. artikulua.

4. Kontratazioa

Baldin eta, aurrekoa aplikatu eta gero, aurrekontu zuzkidura geratzen bada, baina zuzkidura hori aurrekontu ezagatik laguntzarik gabe uztea proposatu den puntuazio handieneko espedientean aurreikusitako kopurua baino txikiagoa bada, laguntza murrizketa aplikatu ahal izango da gainerako aurrekontu zuzkidurarekiko modu proportzionalean. Horri espediente murriztua esaten zaio.

Halakoetan, onuradun izan litekeen entitateari behin-behineko ebazpen proposamena jakinaraziko zaio; lortutako puntuazioa eta emango litzaiokeen laguntza kopuru berria zehaztuko zaizkio. Entitate interesdunak emandako epean bere onespena jakinarazten ez badu, modu berean jokatuko da aurrekontu ezagatik laguntzarik gabe uztea proposatu den puntuazio handieneko hurrengo espedientearekin.

Era berean, laguntzaren lehen esleipena egin eta hiru hilabeteko epean emandako zenbatekoak gutxitzen badira edo dirulaguntza jasotzeko eskaerari uko egiten bazaio, zenbateko horiek honako hauei esleituko zaizkie, hurrenkera zorrotz gordeta: dagokion laguntza motaren kreditu faltagatik laguntzarik jaso ezin izan duten eskaerei, betiere Euskadiko aurrekontu araubidearen arloan indarrean diren lege xedapenen testu bategina onartzen duen eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu araubidea arautzen duen maiatzaren 24ko 1/2011 Legegintza Dekretuan ezarritako mugen barruan.

Behin-behineko ebazpen proposamena

1.- Espedientea eta Balorazio Batzordearen txostena kontuan hartuta, behin-behineko ebazpen proposamena egingo da. Ebazpen proposamena behar bezala arrazoitua egongo da eta pertsona interesdunei jakinaraziko zaie. Pertsona interesdunek hamar eguneko epea izango dute alegazioak aurkezteko, baldin eta:

a) prozeduran beste gertaera edo alegazio batzuk eta pertsona interesdunek aurkeztutako frogak ez diren beste froga batzuk agertzen edo kontuan izaten badira, eta
b) espedientea “espediente murriztua” bada.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuez gainera, aurkeztutako behin-behineko ebazpen proposamena behin betikoa izango da, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 21. artikuluko 3. atalak xedatzen duen moduan.

Egon litezkeen alegazioak aztertu, eta jarraiko paragrafoetan zehaztutako puntuak egiaztatu ondoren, Mendinetek honako informazio hau bidaliko dio landa garapeneko zuzendaritza eskudunari:

- Deialdiaren betekizunak ez betetzeagatik ezestea proposatzen diren eskaeren zerrenda, eta, horrekin batera, ezesteko arrazoia.
- Diruz laguntzea proposatu den proiektuen zerrenda. Bertan adieraziko dira proiektu bakoitzaren puntuazioa, eskatu duen pertsonaren nortasuna, eskatutako

zenbatekoa, diruz lagun daitekeen zenbatekoa eta aplikatu beharreko ehunekoa eta dirulaguntzaren zenbatekoa.
- Atzera egin duten eskaeren ebazpena.

Zuzendaritzak egingo du diruz lagundutako jardueren kontrola eta jarraipena. Horretarako, egokitzat jotzen dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu, betiere diruz lagundutako proiektuak egoki gauzatzen direla egiaztatzearren, eta, horretarako, pertsona onuradunek eman egin beharko dute eskatzen zaien informazio eta dokumentazio oro.

Pertsona eskatzaileek dirulaguntzak itzultzeari buruzko betebeharrak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik. Egiaztapen hori egiteko, kontuan hartuko da Ekonomia eta Ogasun sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduak xedatutakoa, hain zuzen ere Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Aginduko 7. artikuluak xedatutakoa. Era berean, laguntza eskatzaileak landa garapeneko elkarteak badira, zuzendaritza kudeatzaileko zerbitzu teknikoetakoek automatikoki egiaztatuko dute elkarteek zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztela, bai eta haien IFZ nortasuna zein den ere. Dena den, pertsona interesdunak egiaztatze automatikoaren aurka egon daitezke. Hala bada, beraiek aurkeztu beharko dituzte agiriak.

3.- Dirulaguntzak emateko espedientean organo kudeatzailearen txostena agertuko da, eta txosten horretan organo kudeatzaileak adieraziko du bere esku duen informazioaren arabera pertsona onuradunek dirulaguntzak eskuratzeko bete behar diren baldintza guztiak betetzen dituztela.

4. Behin betiko ebazpen proposamena, ondoren, ebazteko eskumena duen organoari igorriko zaio.

5. Behin-behineko eta behin betiko ebazpen proposamenek ez diote inolako eskubiderik ematen proposatutako pertsona onuradunari Administrazioaren aurrean.

# 7. oinarria..- Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoa eskaerarekin batera aurkeztutako aurrekontua, proformako fakturak eta/edo fakturak oinarritzat hartuta kalkulatuko da, laguntza bakoitzean adierazitako zenbatekoa aintzat hartuta. Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko eta benetako kostua onetsitako gastuaren aurrekontua (laguntza zehazteko baliatu zena) baino txikiagoa bada, emandako dirulaguntzaren zenbatekoa txikitu egingo da, dagokion proportzioan, landa garapeneko zuzendaritza eskudunaren likidazio ebazpenaren bidez, eta, gero, dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio. Diruz lagundutako jardueraren behin betiko kostu erreala handiagoa bada ere, dirulaguntzaren zenbatekoa ez da aldatuko.

Gainfinantzaketarik badagoen edo ez zehazteko, onartutako exekuzio-aurrekontua izango da kontuan, eta ez jarduketaren behin betiko kostua. Gainfinantzaketa dagoen edo ez zehazteko, onartutako gauzatze-aurrekontua izango da kontuan, eta ez jarduketaren behin betiko kostua.

# 8. oinarria..- Ebazpena

Landa garapenaren arloko zuzendaritza eskuduneko titularrak, Mendinetek egindako proposamenak ikusita, ebazpen bakar bat emango du. Ebazpen horrek arrazoituta egon beharko du erabakiak ebazpen proposamenekin bat egiten ez duenean, azken horiek ez baitira lotesleak.

Ebazpenean, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 22.3 artikuluan aurreikusitakoa jaso beharko da:

- Onartutako eskaerei dagokienez:
    - Pertsona onuradunaren izena.
    - Diruz lagundutako proiektua.
    - Diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoa.
    - Diruz lagundutako zenbatekoa, urtez urte banatuta, eta ordaintzeko modua eta epeak zehaztuta.
    - Aurreikusitako jarduerak gauzatzeko epea.
    - Onuradunari honako agiri hauek aurkezteko betebeharra ezartzen dion klausula bat: erakundearen edo elkartearen eraketa egiaztatzekoa, eta, hala badagokio, proiektua egiteko beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak egiaztatzekoak.
    - Deialdirako esteka.
- Onartu ez diren eskaerei dagokienez:
    - Pertsona eskatzaileen izena.
    - Laguntza ukatzeko arrazoiak.

Prozedura ebazteko eta ebatzitakoa jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdi hau MENDINET Landa Garapenaren Aurrerapenerako Elkartearen webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta hurrengo apartatuan ezarritako argitalpena egin ez bada, entitate interesdunei ziurtatzen die dirulaguntza emateko eskaera administrazio-isiltasunez ezetsi dela, gora jotzeko administrazio-errekurtsoa jartzearen ondorioetarako[22].

Lehia-konkurrentziako prozeduraren ebazpena Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitalpen horrek jakinarazpen-ondorioak[23] izango ditu. Dena den, interesdun guztiei banaka jakinaraziko zaie ebazpena osorik; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalera jo beharko da: https://www.euskadi.eus/nirekarpeta. Nolanahi ere, lehenik egiten den jakinarazpenaren data hartuko da jakinarazpen-datatzat.

Laguntza emateko edo ukatzeko ebazpenaren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio landa-garapenaren arloan eskumena duen sailburuordeari. Horretarako, hilabeteko epea izango du ebazpenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, edo edozein unetatik aurrera, administrazio-isiltasunak[24] ondorioak izan eta hurrengo egunetik aurrera.

---

[22]Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikulua.

[23]Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1.b) artikulua.

[24] Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 122. artikulua.

# 9. oinarria..- Onuradunen betebehar orokorrak

Onuradunek laguntza lerro bakoitzaren betebehar espezifikoak bete beharko dituzte, bai eta honako hauek ere:

- Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman izanaren jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean onuradunek ez badiote berariaz uko egiten, onartu egiten dutela ulertuko da.
- Dirulaguntza eman zaion xederako erabiltzea, dirulaguntza emateko edo, hala badagokio, likidatzeko ebazpenean ezarritako baldintzak eta epeak betez.
- Laguntzaren xede izan den gastua dirulaguntza emateko ebazpenean edo, egonez gero, luzapeneko ebazpenean jasotzen den epean egitea.
- Dirulaguntzaren xede diren inbertsioak mantentzea, deialdi honen laguntza lerro bakoitzerako atalen arabera. Epe horretan, onuradunak dirulaguntza eman zitzaion helbururako erabili beharko ditu ondasunak. Erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, gutxienez bost urtekoa izango da, eta gainerako ondasunen kasuan, gutxienez bi urtekoa.
- Zuzendaritzari, https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-egoitza/eu/ bidez, inbertsioa osorik edo partzialki gauzatu dela jakinaraztea, eta haren esku uztea inbertsioak eta gastuak egin dituztela egiaztatzeko dokumentazio guztia.

- Pertsona onuradunek behar bezala jakitera eman beharko dute jarduketa baliabide publikoen bidez finantzatua izan dela, gardentasunari buruzko legeriak xedatutako moduan. Zehatzago esanda, informazio, publizitate eta ikusgaitasunari dagokienez, modu honetan eman beharko dute ezagutzera NPBPE Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoaren laguntza:

  a) Entitate onuradunen web orri ofizialean, halako web orria baldin badago, beren sare sozialetako kontu ofizialetan eragiketaren deskribapen labur bat azalduko dute laguntza mailaren neurrian, eta beren helburuak eta emaitzak adieraziko dituzte.

  b) Adierazpen bat jarriko dute, ikusteko moduan, laguntza nabarmenduz, eragiketa gauzatzerakoan prestatuko diren komunikazio dokumentuetan eta materialetan, baldin horiek publikoari edo partaideei zuzenduta baldin badaude.

  c) Baldin eta eragiketa eraikuntzako azpiegiturak edo jarduketak finantzatzeko bada eta eragiketen gastu publikoa 50.000 eurokoa baino handiagoa bada, azalpen plaka bat edo pantaila elektroniko baliokide bat ipiniko dute proiektuari buruzko informazioarekin. Gastu publikoa 10.000 eurokoa baino handiagoa bada, gutxienez A3 tamainako kartel bat ipiniko dute publikoak erraz ikusteko leku batean, eragiketari buruzko informazioarekin.

- Jarduerarekin lotutako komunikazio guztietan, hizkuntza inklusiboa erabiliko da irudietan zein testuetan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen

aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan xedatutakoa beteko da.

- Eskatutako informazio guztia ematea landa garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, horiek ikuskatu ditzaten laguntzak zertarako erabili diren eta laguntzen bidez bete nahi ziren helburuak bete diren.
- Eskura izatea merkataritza legeriak eta kasu bakoitzean onuradun bakoitzari aplikatu dakiokeen sektoreko legeriak eskatutako terminoetan behar bezala ikuskatutako kontabilitate liburuak, izapidetutako erregistroak eta gainerako agiriak, egiaztapen eta kontrol eskumenak behar bezala bete direla bermatzeko.
- Landa garapenaren arloan eskumena duen sailari idatziz komunikatzea helburu bererako eskatu eta eskuratu izan litzakeen beste dirulaguntza eta laguntza batzuk, edozein izan dela ere emailea, administrazio edo entitate publiko nahiz pribatu, zirkunstantzia horren berri izan eta ondorengo hamabost egun naturaletan, eta, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.
- Dirulaguntza jaso dezakeen gastu bererako beste dirulaguntzarik, laguntzarik, sarrerarik edo beste edozein baliabide ekonomikorik eskatu duen ala ez komunikatzea, edozein izan dela ere emailea, administrazio edo entitate publiko nahiz pribatu.
- Jasotako funtsak zertarako erabili diren justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatzeko eta kontrolatzeko ekintzetan erabil baitaitezke.
- Hala badagokio, jasotako funtsak itzultzea.
- Sail eskudunari idatziz komunikatzea dirulaguntza ematerakoan kontuan izan den zirkunstantzia objektibo edo subjektiboaren inguruan izandako aldaketa. Komunikazio horretarako, hamabost egun natural egongo dira, zirkunstantzia horren berri izan den egunaren biharamunetik hasita, eta, betiere, jasotako funtsei emandako erabilera justifikatu aurretik.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela egiaztatu beharko dute, harik eta dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte. Zuzendaritza kudeatzaileko zerbitzu teknikoetakoek automatikoki egingo dituzte egiaztatze lanak. Dena den, entitate onuraduna egiaztatze automatikoaren aurka egon daiteke. Hala bada, berak aurkeztu beharko ditu agiriak.
- Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 14., 27. eta 42. artikuluek xedatzen dituzten betebeharrak betetzea.
- Deialdi honekin lagundutako proiektuak zabaltzen eta sustatzen laguntzea Mendineti eta bazkide diren entitateei.

## 10. oinarria..- Gauzatzeko gehieneko epeak

Proiektuak 2025eko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra bitartean gauzatuko dira. Deialdi honetan ez dira sartuko 2025eko urtarrilaren 1a baino lehen hasitako proiektuak, eta ezta gastuak deialdiaren ekitaldian egitea aurreikusten ez duten proiektuak ere.

Laguntza emateko ebazpenean ezarritako epean gauzatu beharko dira diruz lagun daitezkeen jarduerak. Epe horiek proiektuen finantzaketarako kredituen izaerara egokituko dira.

Salbuespen moduan, landa garapeneko zuzendaritza eskuduneko titularrak urtebeteko luzapenak (gehienez 2) eman ahal izango ditu ebazpen bidez. Luzapen horiek ezin izango dira 2029ko irailaren 30etik aurrera luzatu, NPBren 2023-2027ko Plan Estrategikoaren progamazio-aldiaren itxiera kontuan hartuta, 2029ko abenduaren 31n finkatuta baitago. Horretarako, onuradunak eskaera eta justifikazioa aurkeztu beharko ditu zuzendaritzan, gehienez ere inbertsioa eta/edo gastua bukatuta egon behar duen eguna baino 30 egun natural lehenago, laguntza emateko ebazpenak edo azken luzapenak xedatutakoa kontuan hartuz.

# 11. oinarria..- Dirulaguntza jaso duen jardueraren kontratazioa

Onuradunak diruz lagundutako jarduerak kontratatzen dituela ulertuko da hirugarren batzuekin hitzartzen badu haiek egitea dirulaguntzaren[25] xede diren jarduera guztiak edo haien zati bat. Kontzeptu horretatik kanpo gelditzen dira onuradunak dirulaguntza jaso duen jarduera bere kontura gauzatu ahal izateko egin behar dituen gastuak.

Enplegua sortzeko kasuetan izan ezik, pertsona onuradunak diruz lagundutako jardueraren %100era arteko kontratazioa egin ahal izango du. Ezin izango da jarduerarik kontratatu, baldin eta diruz lagundutako jardueraren kostua gehitu eta jardueraren edukiari inongo balio erantsirik ematen ez badio.

Hirugarrenekin kontratatutako jarduerak dirulaguntzaren %20tik gora hartzen badu eta kopuru hori 60.000 eurotik gorakoa bada, kontratazioak honako betekizun hauek bete beharko ditu:

- Kontratua idazki bidez egitea.
- Erakunde emaileak aldez aurretik baimena ematea kontratua egiteko. Diruz lagundutako jarduerarako beste administrazio publiko batek dagoeneko dirulaguntzaren bat eman badu, ulertuko da administrazio horrek dagoeneko egiaztatu duela betekizun horiek betetzen direla.

Ezin da kontratua zatikatu, zenbatekoa murrizteko eta aurreko oinarriko betekizunak bete beharrik ez izateko helburuarekin.

Kontratistak onuradunaren aurrean baino ez daude behartuta, eta onuradunak oso-osorik bereganatuko du diruz lagundutako jarduera gauzatzearen ardura.

Aurreko oinarrian jasotakoa betetzeko, pertsona onuradunei dagokie ziurtatzea, diruz lagunduko den jarduera gauzatzea hirugarrenekin hitzartuz gero, dekretu honek ezarritako mugak berdin errespetatuko direla diruz lagun daitezkeen gastuen zenbatekoari eta izaerari

[25]Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 31 artikulua.

dagokienez. Kontratistek dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 42. artikuluan adierazitako lankidetza betebeharra bete behar dute, eta muga horiek benetan errespetatzen dituztela behar bezala egiaztatzeko aukera eman.

Alabaina, onuradunak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren gauzatze osoa edo partziala honako hauekin itundu:

- Dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 13. artikuluan zehaztutako galarazpenetako batean dauden edo horri lotuta dauden pertsonekin.
- Kontratuaren xede den jarduera egiteko beste dirulaguntza batzuk jaso dituzten pertsona edo erakundeekin.
- Bitartekari edo aholkulariekin, horiei ordaindu beharrekoak eragiketaren kostu totalaren ehuneko jakin gisa definitzen badira, betiere ordainketa hori ez badago justifikatuta egindako lanak edo emandako zerbitzuak merkatuan daukan balioaren erreferentziaren arabera.
- Onuradunei lotuta dauden pertsona edo erakundeekin, honako egoera hauetakoren batean salbu:
    - Dirulaguntza ematen duen organoaren aldez aurretiko eta berariazko baimena lortu bada.
    - Diruz lagun daitezkeen zenbatekoak ez gainditzea lotutako erakundeak egindako kostua. Kostua justifikazioan egiaztatuko da, onuradunaren gastuak egiaztatzeko ezarritako terminoetan.

  Ulertuko da dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 31.8 artikuluan jasotako egoeraren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoekin edo nortasunik gabeko taldeekin dagoela lotura.

- Deialdi edo programa berean laguntza eskatu, baina betekizunak betetzen ez dituztelako edo beharrezko balorazioa lortu ez dutelako laguntzarik gabe geratu diren pertsonekin edo erakundeekin.

# 12. oinarria..- Laguntzen justifikazioa

Diruz lagundutako jardueraren inbertsioak edo gastuak egin ostean, onuradunak horiek amaitu direla jakinaraziko dio zuzendaritzari.

Zuzendaritzako teknikariek dirulaguntza jaso duen inbertsioa egin dela eta gastua eraginkorra dela egiaztatu eta ziurtatuko dute, materialki nahiz agiri bidez. Egiaztatze materialaren bidez ziurtatuko da dena delako ondasuna benetan badagoela, balioztatutako proiektuari dagokiola, haren erabilgarritasuna eta funtzionamendua, dokumentuetako justifikazioarekin bat datorrela, eta dirulaguntza jaso duten inbertsio edo gastuen arabera beharrezkoak diren beste egiaztapenak.

Inbertsioa edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da laguntza-neurri bakoitzari dagokion apartatuan jasotako dokumentazio espezifikoaren bidez.

Kudeaketa egokia eta oinarri honetako 1. puntuan aipatzen diren laguntzen ordainketa bermatzeko, justifikazio agiriak aurkezteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, laguntza emateko ebazpenean edo azken luzapenean inbertsioa edo gastua amaitzeko ezarritako azken egunetik kontatzen hasita. Zuzendaritzak epe hori luzatzea erabaki dezake, betiere pertsona onuradunak epea amaitu aurretik hala eskatzen badu, emandako epean justifikatzea ezinezkoa zaiola behar bezala arrazoitzen badu eta epea luzatzea hirugarrenen eskubideen kaltetarako ez bada.

Landa garapeneko zuzendaritza eskuduneko titularrak agiri gehiago eska ditzake, behar bezalako arrazoiak emanda, egokitzat jotzen badu.

# 13. oinarria..- Dirulaguntza ordaintzea

Landa garapeneko zuzendaritza eskudunak egin beharko du ordainketa eta Mendineti egokituko ez zaizkion gainerako jarduketak, edo indarreko legearen arabera dagozkionak.

Oro har, ordainketak laguntza aurreko oinarrian ezarritako baldintzetan arrazoitu ondoren eta zuzendaritzako teknikariak ziurtapena egin ondoren egingo dira. Egiaztapen hori egin eta gero, eta dokumentazioa osatuta dagoenetik bi hilabeteko epean gehienez ere, beharrezkoa den izapidetzea egingo da Ogasun eta Ekonomia Sailean.

II. eta IV. neurrietan jasotako dirulaguntzen kasuan, bi zati ordaindu ahal izango dira interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ondoren. Laguntza emateko unean, pertsona onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe badaude, ez da ordainketa partzialik egingo hura eratu arte.

Onuradunei dirulaguntza hauek ordaintzeko, ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren erakunde autonomoen antzeko dirulaguntzak edo laguntzak direla-eta bideratzen hasitako itzulera edo zehapen prozedurak amaituta edukitzea.

Inbertsioak ez badira ezarritako gehieneko epeetan egiten, ezta epeen luzapenetan ere, edo inbertsioa egin izana egiaztatzeko agiriak ez badira epean aurkezten, onuradunek dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko dute, eta, hala dagokionean, itzulera edo zehapen prozedura jarriko da abian.

# 14. oinarria.- Aurrerakinak

Onuradunak aurrerakinak eska diezazkioke Landa Garapeneko eta Europar Politiketako zuzendaritzari.

Aurrerakina ordainduko da baldin eta onuradunak aurrerakinaren zenbatekoaren adinako

bermea eratu badu, gutxienez, Eusko Jaurlaritzako organismo ordaintzailearen alde[26].

# 15. oinarria..- Dirulaguntzaren baldintzak aldatzea

Aldi berean beste edozein erakunde publiko nahiz pribatuk emandako dirulaguntzak eta laguntzak lortzen badira, horren berri eman beharko zaio zuzendaritzari egoera horren berri izan eta hurrengo hamabost egun naturalen barruan, eta, edonola ere, jasotako funtsen erabilera justifikatu baino lehen. Hori dela-eta, dirulaguntza emateko ebazpena aldatu liteke; kasu horretan, deialdi honetan ezarritako gutxieneko betekizunak eta laguntza ematea eragin zuen xedea bete beharko dira. Horretarako, landa garapeneko zuzendariak dagokion aldaketa ebazpena emango du. Ebazpen horretan, emandako dirulaguntzaren zenbatekoak oinarri berrira egokituko dira, eta, hala badagokio, hasiera emango zaio dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean aurreikusitako itzulketa prozedurari.

Honako hauek jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio zuzendaritzari, baina laguntza emateko ebazpena ez da aldatuko: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurreikusitako epeetan ez egitea; eskabidearekin batera aurkeztutako proiektuaren aldean proiektua aldatu edo birprogramatzea, baldin eta aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen bada, baina dirulaguntzaren xedeari eusten bazaio. Dirulaguntzak bateragarriak ez badira edo jaso beharreko gehienezko zenbatekoa gainditzen badute, dirulaguntza aldatu ahal izango da.

Honako hauek jakinarazi eta justifikatu beharko zaizkio zuzendaritzari, eta baliteke dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea: dirulaguntza emateko kontuan hartu ziren baldintzak aldatzea; onetsitako proiektua aurreikusitako epeetan ez egitea; eskabidearekin batera aurkeztutako proiektuaren aldean proiektua aldatu edo birprogramatzea, baldin eta aurkeztutako proiektua nabarmen aldatzen bada, baina dirulaguntzaren xedeari eusten bazaio. Ondorio horietarako, aipatutako zuzendaritzako titularrak dagokion aldaketa ebazpena emango du.

Web-helbide honetan eskuragarri dagoen eredu normalizatuaren arabera jakinaraziko dira aldaketak:

- LEADER 2026 Programa– I. neurria - Ekintzailetzarako eta barne ekintzailetzarako laguntzak
  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050937

- LEADER 2026 Programa– II. neurria - Nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan inbertsioak egiten laguntzeko laguntzak

[26]Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 2ko 2021/2116 (EB) Erregelamenduaren 64. artikuluaren arabera, eta Batzordearen 2022/127 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren IV. kapituluaren arabera, zeinak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko abenduaren 7ko 2021/2116 (EB) Erregelamendua osatzen baitu, honako hauekin: erakunde ordaintzaileei eta beste organo batzuei buruzko arauak, finantza-kudeaketa, kontuen likidazioa, bermeak eta euroaren erabilera. Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian gordailutuko dira bermeak.

https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050938

- LEADER 2026 Programa– III. neurria - Besteren kontura kontratatzeko laguntzak https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050939

- LEADER 2026 Programa– IV. neurria - Guneak gaitzeko laguntzak

  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1050940

Baldin eta dirulaguntzak emateko ebazpenaren zati bat betetzen ez bada, eta, horregatik, aurkeztu eta onartutako proiektu bat bere osotasunean itxuragabetzen bada, emandako dirulaguntza baliogabetuko da. Horretarako, aipatutako zuzendaritzako titularrak dagokion ebazpena emango du, eta dirulaguntzen araubidea arautzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legeko III. Tituluan xedatutako itzultze prozedurari hasiera emango zaio, hala badagokio.

Baldin eta diruz lagundutako jardueraren behin betiko kostu erreala laguntza emateko kontuan izan eta onartu zen gastuaren aurrekontua baino txikiagoa bada, dirulaguntza eman zuen organoak dagokion proportzioan murriztuko du emandako dirulaguntza, likidazio ebazpenaren bidez; dirulaguntzaren ehunekoa oinarri berriari aplikatuko zaio.

# 16. oinarria..- Atzera egitea eta uko egitea

Eskatzaileak bere eskaeran atzera egiteko aukera izango du. Eskatutako laguntzak emateko prozeduraren ebazpena jakinarazi baino lehen egin beharko du atzera. Atzera egiteko, zuzendaritzari halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetzen dion edozein modu erabiliko da, eta landa garapeneko zuzendaria izango da, ebazpen bidez, atzera egite hori onartu eta prozedura bukatutzat joko duena erakunde horri dagokionez.

Emandako laguntzari uko egin ahal izango dio onuradunak. Uko egite hori emandako dirulaguntza onartu ondoren eta gastua egin baino lehen egin ahal izango da, baldin eta Administrazioak ordainketarik egin ez badu. Uko egiteko, halaxe egin dela egiaztatzea ahalbidetuko duen edozein modu erabiliko da, eta landa garapeneko zuzendaria izango da, ebazpen bidez, berariaz onartuko duena uko egite hori eta prozedura bukatutzat joko duena erakunde horri dagokionez.

Aurkeztutako uko hori ez da onartuko, baldin eta erakunde interesdunari jakinarazi bazaio deialdiaren esparruan hasitako ez-betetze edo zigor prozedura bat hasi dela, prozedura horrek ebazpena eman arte jarraituko baitu.

# 17. oinarria..- Ez-betetzeak

Onuradunak ez badu betetzen deialdi honetako betebeharren bat edo dirulaguntzak emateko ebazpenak ezartzen duen baldintzaren bat, ez badu proiektuaren zati bat betetzen (eta, modu horretan, laguntzaren xedea osorik hutsaltzen badu), edo dirulaguntza edo laguntza publikoak itzultzera behartzen duen egoeraren batean badago, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 36. artikuluarekin bat etorriz, laguntza

eman zuen organo eskudunak, ebazpen bidez, dirulaguntza jasotzeko eskubidea kenduko dio (zati bat edo oso-osorik) onuradunari, eta, hala badagokio, aginduko dio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko hartu dituen laguntzak (guztia edo zati bat, proiektuaren betetze mailarekiko modu proportzionalean) eta berandutze interesak, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 40. artikuluarekin bat etorriz. Aipatutako diru kopuruak diru sarrera publikotzat hartuko dira lege ondorio guztietarako.

Landa garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako titularra izango da itzulketaren espedientea hasteko eta tramitatzeko organo eskuduna, dirulaguntzen araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legeko 40.1 artikuluan aurreikusitako deskontzentrazioaren arabera.

Arau hauste administratibotzat har daitezkeen gertakarien ondorioz hasten bada itzulketa prozedura, organo eskudunari jakinaraziko zaizkio gertakariak, dagokion zehapen prozedura has dezan.

Itzulketa partziala denean, zenbatekoa egikaritze mailaren proportzioan kalkulatuko da, edo, dirulaguntzaren xede den jarduera neurri bakoitzean zehaztutako epean mantentzen ez denean, “prorrata temporis” araua aplikatuz, ezinbesteko kasuetan edo ezohiko inguruabarretan izan ezik.

## 18. oinarria..- Estatuaren laguntzak eta bateragarritasunak

Hemen arautukako laguntzak ez dira estatu laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 107. eta 108. artikuluen arabera, eta bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek, Europar Batasunak edo nazioarteko erakundeek helburu bererako emandako beste laguntza batzuekin. Gainera, 2023ko abenduaren 13ko Batzordearen 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako minimis arauak errespetatuko dituzte (erregelamendu hori 2023ko abenduaren 15ean argitaratu zen). Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, estatu kide batek enpresa bakar bati emandako minimis laguntzen zenbateko osoa ez da 300.000 euro baino handiagoa izango aurreko hiru ekitaldietan.

Hala ere, dirulaguntzaren zenbatekoak, bakarrik edo beste dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin batera, ezin izango du inola ere gainditu eragiketaren amaierako kostu erreala. Gehiegizko finantzaketa kalkulatzeko, dirulaguntza kalkulatzeko kontuan hartu den ehunekoa hartuko da erreferentziatzat.

Laguntza horiek bateraezinak dira Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren beste laguntzen agindu batzuetan sartzen diren kontzeptuekin.

Ez dira izango diruz laguntzeko moduko kontzeptuak Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) diruz lagun ditzakeenak.

# 19. oinarria .– Datuen babesa

Landa garapenaren arloko sail eskudunak dagokion babes maila emango die datuei, datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legeak xedatutakoaren arabera.

Datuen babesaren inguruan informazio gehiago eta xehatuagoa helbide honetan kontsulta daiteke: https://www.euskadi.eus/klausula-informatiboak/web01-sedepd/es/gardenasuna/037300-geruza2-es.shtml

# I. NEURRIA: EKINTZAILETZA ETA BARNE EKINTZAILETZA

## 20. oinarria..- Neurriaren deskribapena

LEADER eremuan finkatuta dauden eta nekazaritza jarduerak ez diren enpresa eta negozio lerro berriak eta nekazaritza enpresen dibertsifikazioa sortzeko, abian jartzeko eta hasierako funtzionamendurako neurria, enpresa horien forma juridikoa dena dela.

Neurri horrek bi proiektu mota babesten ditu. Eskatzaileak aukeratu egin beharko du 1. lerroa edo 2. lerroa, kontuan izanda 1. lerroa 2. lerroan dagoela.

### 1. lerroa. Enpresa berriak sortzeko babesa:

Enpresa berriak edo negozio-lerroak sortzeko babesa aldez aurretik finkatutako zenbateko finko batekin.

Enpresa berria: edozein pertsona fisikok edo juridikok alta berria sortzea jarduera ekonomikoan.
Zenbateko finkoa ematen da.
Jarduera ekonomikoan, alta berritzat hauxe hartuko da:

- Pertsona fisikoentzat: alta Ogasunean (JEZ) eta Gizarte Segurantzan (LAAB).
- Pertsona juridikoak baldin badira: entitatea eratzea eta Ogasunean alta ematea (JEZ).

### 2. lerroa. Proiektu ekintzailea garatzeko laguntza

Enpresa berria edo negozio lerro berria sortzea, 1. lerroan deskribatutako irismenetik haratago, beste gastu mota batzuk dituena. Gastu horiek laguntza ehuneko batekin finantzatuko dira, oroharreko zenbatekoaz gain. Horrela, ibilbide ekintzailean lagundu nahi da proiektua martxan jartzen den bitartean. 1. lerroko kopuru finkoaz gain, ehuneko bat ematen da laguntza moduan, 24. atalean zehazten diren gastuetarako edo inbertsio txikietarako.

Nekazaritza dibertsifikazioan, diruz laguntzeko moduko 2. lerroko gastuak bakarrik finantzatuko dira, eta ez da zenbateko finkoa emango oroharreko prezioan.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, salbu eta tokiko energia komunitateak; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Edonola ere, ez dira izango diruz laguntzeko moduko kontzeptuak Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) diruz lagun ditzakeenak.

# 21. oinarria.- Pertsona onuradunak

Neurri hauen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikroenpresak eta enpresa txikiak.
- 1. kalteberatasun maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko mota batzuk, hala nola ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.
- Pertsona fisikoak: enpresaburu indibiduala

# 22. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak

- Alta eragin duen jarduera ekonomikoa zuzenean lotuta egotea aurkeztutako negozio planarekin.
- Alta emanda egotea jarduera ekonomiko berri gisa 2025eko urriaren 1etik abian den deialdiko eskabideak aurkezteko azken egunera arte. (Ikus 20. apartatua)
- Eskatzailea aurreko bi deialdietan laguntza honen onuraduna ez izatea eta "Onuradunen betebehar espezifikoak" atalean jasotako obligazioa betetzea. Bertan adierazten da enpresa bezala alta eman behar dela, baita bere jardueran ere, Gizarte Segurantzan eta EJZn alta eman ondorengo bi urteetan.
- Hautagarritzat joko dira aurretik autonomoetan alta emandako proiektuak, baldin eta aurrekoa ez den beste jarduera bat egingo dela justifikatzen bada (JEZ berria).

Ulertuko da 2. lerrorako proiektu bat ez dela amaitu oraindik fakturaren bat eta ordainketaren bat badu laguntzaren eskaera-datan.

- Hauek dira lerro bakoitza hautatzeko baldintzak:
  - 1. LERROA_Enpresa berria sortzea: oinarrizko Canvas edo enpresa plan bat aurkeztu beharko du, deialdi bakoitzean emango den lehen laguntza lerrorako ereduaren arabera.
  - 2. LERROA_Proiektu ekintzailea garatzea: enpresa plan bat aurkeztu beharko du, eta deialdi bakoitzean emango den ereduan agertzen diren gutxieneko puntuak jaso beharko ditu.
- Pertsona eskatzaile izateko betekizunak (puntu hauetako bat bete beharko da gutxienez):
  - Beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren Euskadiko LEADER eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariek (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute, edozein eremutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere.

- Nekazaritzakoak ez diren mikroenpresek eta enpresa txikiek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere, betiere negozioa Euskadiko LEADER eremuko gune fisiko batean garatzen badute.
- Nekazaritzakoak ez diren enpresa ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
- Pertsona fisikoak edozein lekutan egon daitezke erroldatuta, baita hiriguneetan ere, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
- Dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako espazio fisikorik egongo ez balitz Euskadiko LEADER eremuan, pertsona fisikoek Euskadiko LEADER eremuan egon beharko dute erroldatuta, ustiategiek eta enpresek Euskadiko LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala eta enpresa ertainek Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

Gainera, erakunde eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, eta onuraduna bada, neurriak dituen betebeharrak bete beharko ditu.

# 23. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa

5. oinarriko dokumentazio orokorraz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira lerro bakoitzeko:

Laguntza neurriari buruzko dokumentazio orokorra:

- Pertsona fisikoak:
  - Langile Autonomoen Erregimen Berezian alta ematea (RETA).
  - Lan-bizitza
- Proiektua gauzatuko den lursail edo higiezinen jabetza, gozamena, errentamendua edo prekarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, eremu fisikoa badu edo pertsona juridikoa bada.
- Nortasun juridikorik gabeko taldeen eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek sinatutako agiri bat. Bertan, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak jasoko ditu.
- Pertsona fisikoek:
  - Pertsona fisikoa EAEtik kanpo erroldatuta badago, errolda agiria aurkeztu beharko du.
- Hala badagokio, BEZetik salbuetsita egotearen ziurtagiria.

1. lerroko dokumentazio espezifikoa:

- Oinarrizko Canvas, deialdiko ereduaren arabera.

2. lerroko dokumentazio espezifikoa:

- Enpresa plana, deialdiko ereduan agertzen diren gutxieneko puntuak jasotzen dituena.
- 2. lerroko gastu eta inbertsio txikietarako, gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak aurkeztu beharko dira.
- Dibertsifikatzen duten nekazaritza enpresek:
    - Jarduera nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria.
        - Baldintza hori egiaztatzeko, dagokion foru aldundiak emandako ziurtagiria edo
        - baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:
            - Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztagiria, nekazaritza jardueraren arabera.
            - Azken ekitaldian PFEZan egindako nekazaritza etekinen deklarazioa.
            - Ustiategiaren titulartasunaren edo titularkidetasunaren egiaztapena.
- Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak. Ez dira onartuko 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago egindako fakturak.

Hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez, eta haien kontzeptuak elkarren artean alderatzeko modukoak izango dira, salbu eta ez badago haien ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar besteko entitaterik.

Besterik ezean, eskaintza ekonomiko merkeena aukeratuko da. Eskaintza ekonomiko merkeena aukeratzen ez bada, zenbateko hori diruz laguntzeko modukotzat hartzeko, aukera hori arrazoitu beharko da efizientzia- eta ekonomia-irizpideen araberako argudio nahikoarekin.

Eskaerarekin batera hiru aurrekontuak/fakturak/proformako fakturak aurkezten ez badira, dagokion inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Aurrekontuak eta proformako fakturak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez aurkeztu beharko dira, eta, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko dute:

- Bezeroaren izena.
- Hornitzailearen izena.
- Kontzeptua.
- Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Fakturek, ordea, aurretik adierazitakoa eduki beharko dute, baita zenbakia eta data ere.

- Laburpen-taula, Excel formatuan, aurrekontuen, proformako fakturen eta fakturen xehetasunekin; bertan, aukeratutako eskaintza zein den adieraziko da, hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera:

- LEADER 2026 programa – I. neurria, ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako laguntzak

  https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/web01-tramite/eu/

# 24. oinarria.- Diruz lagundu daitezkeen gastuak

## 1. lerroa

Zenbateko zehatz bat emango da proiektuaren eta eskatzaile motaren arabera, eta zenbateko horrekin honako gastu hauek ordaintzen lagunduko da:

- Notario gastuak.
- Dedikazioa: pertsona ekintzaileen lehen bi urteetako autonomoen gehieneko kuota autonomoa.
- Aholkularitza fiskala, lanekoa, kontabilitatekoa, juridikoa edo administratiboa.
- Enpresa plana abian jarriko den lokala ohiko etxebizitza ez denean, lokaleko ohiko gastuak, hala nola alokairuak, argia eta ura.
- Enpresarien edo profesionalen elkarteetako partaidetza kuotak eta elkargoetako gastuak.
- Finantza gastuak.

## 2. lerroa

Diruz laguntzeko modukoak izango dira honako gastu eta inbertsio txiki hauek:

- Enpresarako prestakuntza eta prestakuntza espezifikoa.
- Kanpoko lanak:
    - Aholkularitza, kanpoko laguntza teknikoa, prospekzio azterketak, dokumentazioa, merkatua eta/edo bideragarritasuna.
- Azoketara joatea:
    - Sarrera.
    - Txartelak aurkeztuz justifikatutako bidaiak.
- Bi gaueko egonaldia, gehienez, gaueko 200 euroko mugarekin
- Maketak eta prototipoak egitea.
- Komunikazioa eta publizitatea:
    - Web orrien diseinua, erregistroa eta hostinga, sare sozialen diseinua, katalogoen diseinua eta edizioa, kartelak, bisita txartelak, errotulazio gastuak, publizitate kanpainak, etab.
- Patenteak, homologazioak, erabilgarritasun ereduak eta marka komertzialak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak.
- Informatika-tresneria (softwarea eta hardwarea). Laguntzaren gehieneko zenbatekoa: 700,00 € ordenagailu bakoitzeko, 300 € tableta bakoitzeko eta 400 € telefono bakoitzeko.
- Programa informatikoak edo telefono mugikorretarako aplikazioak erostea edo garatzea.
-

## Diruz lagun ez daitezkeen gastuak

Laguntza zehazteko orduan ez dira kontuan hartuko enpresa planean jasota egon daitezkeen partida hauek:

- Oro har, lursailak eta etxebizitzak, eta etxerako ibilgailuak erostea edo alokatzea.
- Material suntsikorrak erostea, prototipoen eraikuntzarako ezarritakoari kalterik egin gabe.
- Langile gastuak.
- Dietak.
- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.
- Zuzeneko zergak, gizarte aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekarguak, isunak, zehapenak, banku bermearen gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak (1. lerroan deskribatutakoekin lotutakoak izan ezik) eta aseguruei lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratistari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Pertsona onuradunak azpikontratatutako kanpoko enpresak ez dira berarekin pertsonalki eta/edo profesionalki inplikatuta egongo; era berean, ez dute loturarik izango zuzenean edo zeharka, akzio edo partaidetzen bidez.

Lotura hori dagoenean, dagokion Gobernu Zuzendaritzari baimena eskatu beharko zaio zerbitzua kontratatu aurretik hori onar dezan, hala, diruz lagun daitekeen gastutzat har dadin.

# 25. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak

Deialdi honetako 9. oinarrian jasotakoez gain, onuradunak alta emanda egon behar du enpresa gisa, baita bere jarduerak ere, etenik gabe, Gizarte Segurantzan eta EJZn alta eman eta hurrengo bi urteetan.

# 26. oinarria.- Dirulaguntzen intentsitatea eta zenbatekoa

1. LERROA: Laguntzaren zenbatekoa finkoa izango da, eskatzailearen profilaren eta proiektuaren kokapenaren arabera.

| KM | Gizona | Emakumea | 30 urtetik beherako gizon gaztea / kolektibo kaltebera | 30 urtetik beherako emakume gaztea / kolektibo kaltebera |
|---|---|---|---|---|
| **K1** | 8.050,00 | 8.855,00 | 9.257,50 | 10.183,25 |
| **K2** | 7.490,00 | 8.239,00 | 8.613,50 | 9.474,85 |
| **K3** | 7.210,00 | 7.931,00 | 8.291,50 | 9.120,65 |
| **K4** | 7.000,00 | 7.700,00 | 8.050,00 | 8.855,00 |

Zenbateko hori kalkulatzeko, eskatzaileak deialdiaren urtean zenbat urte betetzen dituen hartuko da kontuan.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, gazteen kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen %50 gazteak direla eta gutxienez kapital sozialaren %50 bazkide gazteen esku dagoela justifikatu beharko da.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, kolektibo kalteberaren kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen %50 kalteberak direla eta gutxienez kapital sozialaren %50 bazkide kalteberen esku dagoela justifikatu beharko da.

Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, emakumeen kategorian sartzeko, gutxienez bazkideen %50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren %50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da.

2. LERROA:

%75eko dirulaguntza jaso dezaketen gastuen eta inbertsio txikien zenbatekoa kontuan hartuta kalkulatuko da laguntza.

Gehienez 50.000 € emango dira 1. lerroaren eta 2. lerroaren artean.

1.- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen pertsona bat bada, %10eko zenbatekoa gehituko zaio laguntzaren zenbatekoari.

2- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen ustiategi baten emakume titularra edo titularkidea bada, edo emakumeen esku dauden ehuneko eta partaidetza sozialak gutxienez %50 diren pertsona juridikoa bada (elkargokideak bi badira), edo gainerako kasuetan gutxienez orekatua bada, %25eko igoera emango zaio ezarritako laguntzaren zenbatekoarekiko.

Lehentasun irizpide hauen arabera emango da laguntza:

- Kalteberatasun maila: mailaka lehenetsiko da, lehentasun gehien duenetik (K1) gutxien duenera (K4).
- Eskatzaile mota: jarduera nagusia nekazaritza duten emakumeek sustatutako proiektuak lehenetsiko dira (jarduera nagusia nekazaritza duten gizonezkoen

aurretik), gero emakume gazteak edo kolektibo kalteberetakoak (egoera berean dauden gizonen aurretik), eta, azkenik, emakumeak (gizonen aurretik).

- Laguntza lerroa: 2. lerroko proiektuak lehenetsiko dira (1. lerroko proiektuen aurrean), eta, lehenengoaren barruan, diruz lagun daitekeen gastuaren arabera; zenbat eta gastu handiagoa, orduan eta lehentasun handiagoa izango dute.

# 27. oinarria.- Ordaintzeko eta justifikatzeko modua

### *ORDAINKETA*

Dirulaguntza emateko orduan, bi lerroetan emandako dirulaguntzaren %50 ordainduko da.

Gainerako %50a egindako gastuak justifikatzean ordainduko da. Justifikazio hori hilabete bateko epean aurkeztu beharko da, jarduera ekonomikoari alta eman eta urtebetera, justifikazio agiriak aurkeztuta. , dagokion justifikazio-agiria aurkeztuta.

### *JUSTIFIKAZIOA*

Inbertsioa edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da dokumentazio honen bidez:

## 1. lerroa. Enpresa berriak sortzeko babesa:

- Egindako jarduerak justifikatzeko memoria bat, dirulaguntzaren xedeko proiektua betetzeari buruzko informazioa jasotzen duena eta sexuaren arabera bereizitako informazioa, emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei eta, entitatearen eta haren plantillaren titularrei buruz.
- Pertsona fisikoa bada, autonomoetan alta izatea justifikazio datan.
- Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena faktura edo egiaztagiri horiek ez direla aurkeztu beste laguntza batzuk justifikatzeko (dokumentazioa eranstean, justifikatzeko botoiarekin zuzenean sortzen da).

## 2. lerroa. Ekintzailetza-proiektua garatzen laguntzea:

- Egindako jarduerak justifikatzeko memoria bat, dirulaguntzaren xedeko proiektua betetzeari buruzko informazioa jasotzen duena eta sexuaren arabera bereizitako informazioa, emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei eta, entitatearen eta haren plantillaren titularrei buruz.
- Pertsona fisikoa bada, autonomoetan alta izatea justifikazio datan.
- Erantzukizunpeko adierazpena, adierazten duena faktura edo egiaztagiri horiek ez direla aurkeztu beste laguntza batzuk justifikatzeko (dokumentazioa eranstean, justifikatzeko botoiarekin zuzenean sortzen da).
- Fakturak eta ordainagiriak aurkeztea, bai eta laguntzaren entitate onuradunaren izenaren baliokidea den balio bereko gainerako frogagiriak ere. Finantza-errentamenduaren kasuan, eragiketa amaitzean ondasuna eskuratzeko betebeharra ezartzen duen kontratua.

Dirulaguntzak arautzen dituzten apartatuetan berariaz aurkakoa xedatu ezean, egindako gastutzat joko da benetan ordaindu dena dirulaguntza araudi erregulatzaileak zehazten duen justifikazio-aldia amaitu aurretik.
Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat bada, merkataritza-eragiketetan egindako gastu diruz lagungarriak sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, halakorik ezean, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

- Ordainketen fakturen eta ordainagirien laburpen-taula xehatua, Excel formatuan, datu hauek barne hartuz: fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, enpresa hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula hau egiteko, eredu hauek erabiliko dira:
    - LEADER 2026 programa – I. neurria, ekintzailetzarako eta barne-ekintzailetzarako laguntzak
        - https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/leader-ekintzailetza/web01-tramite/eu/

- Eskudiruzko ordainketa bidezko justifikazioen kasuan, eta hornitzaile bakoitzeko, ezin izango dira eskudirutan ordaindu 1.000 euroko edo gehiagoko operazioak (BEZa barne) edo atzerriko dibisetan kontrabalio hori dutenak, operazioan parte hartzen dutenetakoren batek enpresari edo profesional gisa parte hartzen badu. Hala ere, muga hori 10.000 eurokoa edo atzerriko dibisetan kontrabalioa izango da, baldin eta ordaintzailea pertsona fisikoa bada, zerga-helbidea Espainiatik kanpo duela justifikatzen badu eta erosketa enpresaburu edo profesional gisa egiten ez badu. Adierazitako zenbatekoak kalkulatzeko, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa osa dezaketen eragiketa edo ordainketa guztien kopuruak batuko dira.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, baimenik izan beharrik gabe, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkionak, egunean daudela, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan. Edonola ere, eskatzaileak aurre egin ahal izango dio organo kudeatzailearen egiaztapenari; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

# II. NEURRIA: NEKAZARITZAKOAK EZ DIREN ENPRESETAN ETA NEKAZARITZA DIBERTSIFIKAZIOAN INBERTSIOAK EGITEN LAGUNTZEKOA

## 28. oinarria.- Neurriaren deskribapena

Nekazaritzakoak ez diren jarduerak sortzeko eta garatzeko inbertsioak egiten laguntzeko neurria, bi lerro hauen bidez:

- LEADER eremu osoan mikroenpresak eta enpresa txikiak sortzen eta garatzen laguntzeko lerroa, eta K1 eremuan enpresa ertainak.
- Nekazaritzakoak ez diren jardueretan inbertsioak egiten dituzten ustiategien dibertsifikazioan laguntzeko lerroa, nekazaritzako eta nekazaritzako elikagaiak ustiategitik kanpo merkaturatzea barne (LEADER eremuan).

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Garapen gisa hartuko dira enpresa bati bere jarraitutasuna eta lehiakortasuna bermatzeko behar dituen ekintza guztiak, mantentzeko berritze lanez haratago.

Negozioak berritzearekin lotutako inbertsioei dagokienez, honako bi kasu hauetan bakarrik hartuko dira kontuan:

- Herritarrei zerbitzua zuzenean ematen dieten negozio finkatuetan (>5 urte): diruz laguntzeko modukoak izango dira eremua nabarmen zaharberritzeko inbertsioak, berritzeko inbertsioak (makinak, altzariak...) edo araudietara egokitzeko inbertsioak (irisgarritasuna, osasun publikoa...), eta behin bakarrik izango da onuradun aldi osoan zehar. Herritarrentzako zuzeneko zerbitzutzat hartuko dira EAEko LEADER eremuko biztanleak bezero dituzten zerbitzu enpresak.
- Arreta bereziko eremutzat jotzen diren eremuetan kokatutako enpresa finkatuek (>5 urte) eskatu ahal izango dute, horiek eskaintzen duten zerbitzu mota dena dela, eta behin bakarrik izango dira onuradun aldi osoan zehar.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak eta energia ekoizten duten enpresak, salbu eta tokiko energia komunitateak; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) diruz lagun ditzakeen kontzeptuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

# 29. oinarria.- Pertsona onuradunak

Neurri hauen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikroenpresak eta enpresa txikiak.
- 1. kalteberatasun maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko mota batzuk, hala nola ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.

- Pertsona fisikoak: banakako enpresariak.
- Eratze prozesuan dauden pertsona fisikoak eta juridikoak.

# 30. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak

- Enpresa plan osoa, Mendinetek zehaztutako funtsezko puntu guztiak barne hartuta.
- Nekazaritza dibertsifikazioaren kasuan, onuradunak nekazaritza izan behar du lanbide nagusi.
- Proiektua 2024ko urtarrilaren 1aren ondoren hastea eta laguntza eskaera aurkezterakoan amaituta ez egotea (ez amaitu izanaren akta).
- Entitate eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, eta laguntzen onuradun bada, neurriak dituen betebeharrak bete beharko ditu.
- Higiezin bat erostean soilik oinarritzen den proiektu bat hautagarritzat jotzeko, beharrezkoa izango da jarduera ekonomikoa dagoeneko higiezin horretan garatzen ari izatea edo, jarduera berri baten kasuan, gehienez ere 6 hilabeteko epean hastea.
- Pertsona eskatzaile izateko betekizunak (puntu hauetako bat bete beharko da gutxienez):

    - Beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren Euskadiko LEADER eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariek (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute, edozein eremutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere.
    - Nekazaritzakoak ez diren mikroenpresek eta enpresa txikiek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere, betiere negozioa Euskadiko LEADER eremuko gune fisiko batean garatzen badute.
    - Nekazaritzakoak ez diren enpresa ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
    - Pertsona fisikoak edozein lekutan egon daitezke erroldatuta, baita hiriguneetan ere, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
    - Dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako espazio fisikorik egongo ez balitz Euskadiko LEADER eremuan, pertsona fisikoek Euskadiko

LEADER eremuan egon beharko dute erroldatuta, ustiategiek eta enpresek Euskadiko LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala eta enpresa ertainek Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

Gainera, erakunde eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, eta onuraduna bada, neurriak dituen betebeharrak bete beharko ditu.

# 31. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa

5. oinarriko dokumentazio orokorraz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Enpresa plana.
- Dibertsifikatzen duten nekazaritza enpresek:
    - Jarduera nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria.
        - Baldintza hori egiaztatzeko, dagokion foru aldundiak emandako ziurtagiria edo
        - baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:
            - Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztagiria, nekazaritza jardueraren arabera.
            - Azken ekitaldian PFEZan egindako nekazaritza etekinen deklarazioa.
            - Ustiategiaren titulartasunaren edo titularkidetasunaren egiaztapena.
        - Dibertsifikatzen duen emakume nekazariaren kasuan, nekazaritzako ustiategiaren titularra edo titularkidea, izaera hori egiaztatu beharko du.
- Dagokionean, proiektua babesten duen eta ekintzailetzaren arloan gaitasuna duela egiaztatzen duen erakundearen ziurtagiria.
- Eraikuntza, birgaitze edo zaharberritze obrak egin behar badira:
    - Proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal ziurtagiria.
    - Proiektu teknikoa (hala badagokio). Proiektu teknikoa aurkezten bada, ez da beharrezkoa izango aurreko puntuan aipatutako udal ziurtagiria aurkeztea.
    - Eraikuntza, birgaitze edo zaharberritze lanak egin behar badira, beharrezko baimenak eta lizentziak edo aldeko hirigintza txostena.
- Proiektua gauzatuko den lursail edo higiezinen jabetza, gozamena, errentamendua edo prekarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, eremu fisikoa badu edo pertsona juridikoa bada.
- Eskuratutako higiezinen tasazioak, betiere lurrak eta higiezinak bereizita (hala badagokio).
- Proiektuak hainbat fase baditu eta proiektu tekniko bat edo memoria baloratu bat behar baditu, eskatzen duen faseari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta, gainera, proiektu teknikoa edo proiektuaren faseei buruzko memoria xehatua aurkeztu beharko da.

- Pertsona fisikoek:
  - Pertsona fisikoa EAEtik kanpo erroldatuta badago, errolda agiria aurkeztu beharko du.
- Sozietateek:
  - Galdu-irabazien kontu laburtua edo auditoreak jaulkitako ziurtagiria, Kontu Auditoreen Erregistro Ofizialean inskribatua.
- Nortasun juridikorik gabeko taldeen eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek sinatutako agiri bat. Bertan, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak jasoko ditu.
- Hala badagokio, BEZetik salbuetsita egotearen ziurtagiria.
- Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak. Ez dira onartuko 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago egindako fakturak.

  Hornitzaile ezberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu gutxienez, eta haien kontzeptuak elkarren artean alderatzeko modukoak izango dira, salbu eta ez badago haien ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituzten behar besteko entitaterik.

  Besterik ezean, eskaintza ekonomiko merkeena aukeratuko da. Eskaintza ekonomiko merkeena aukeratzen ez bada, zenbateko hori diruz laguntzeko modukotzat hartzeko, aukera hori arrazoitu beharko da efizientzia- eta ekonomia-irizpideen araberako argudio nahikoarekin.

  Eskaerarekin batera hiru aurrekontuak/fakturak/proformako fakturak aurkezten ez badira, dagokion inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

  Aurrekontuak eta proformako fakturak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez aurkeztu beharko dira, eta, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko dute:

  - Bezeroaren izena.
  - Hornitzailearen izena.
  - Kontzeptua.
  - Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

  Fakturek, ordea, aurretik adierazitakoa eduki beharko dute, baita zenbakia eta data ere.

- Laburpen-taula, Excel formatuan, aurrekontuen, proformako fakturen eta fakturen xehetasunekin; bertan, aukeratutako eskaintza zein den adieraziko da, hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera:

  - LEADER 2026 programa – II. neurria, nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiteko laguntzak.

    https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/web01-tramite/eu/

# 32. oinarria.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Diruz lagundu ahal izango dira egindako inbertsio materialak edo ez-materialak:

- Higiezinak:
  - Eraikinak erostea.
- Obra:
  - Eremuak eta lotutako beste azpiegitura batzuk urbanizatzea, eraikitzea eta birgaitzea.
  - Arkitektoen eta ingeniarien ordainsariak: obran diruz lagun daitekeen kostuaren %15 gehienez.
  - Eraikuntzarekin edo birgaitzearekin lotutako lanak: diruz lagun daitekeen aurrekontuaren %20 gehienez.
- Makinak eta ekipoak:
  - Erostea edo erosteko derrigortasuna duen errentamendua, produktuak merkatuan duen baliora arte.
  - Jarduera berriari lotutako bigarren eskuko erosketa, aurreko 5 urteetan beste laguntzarik jaso ez badute.
  - Ekipamendu informatikoa (softwarea eta hardwarea). Gehienez ere 700,00 €-ko dirulaguntza ordenagailu bakoitzeko eta 300 €-koa tableta bakoitzerako.
- Ibilgailuak:
  - Erostea, jarduera ekonomikoa pertsonak edo salgaiak garraiatzea denean.
  - Erostea, diruz lagundutako jarduera bertan egiten bada eta egokitzapen handia egin behar izan bada.
  - Diruz lagunduko den jarduera garatzeko egokitzapena.
- Altzariak eta tresnak.
- Komunikazioa:
  - Web orriak garatzea, sare sozialak diseinatzea eta abian jartzeko publizitatea.
  - Ibilgailuetako eta eraikinetako errotulazio gastuak.
- Lotutako azterlanak:
  - Proiektuari lotutakoak: diruz lagun daitekeen kostuaren %10 gehienez.
- Inbertsio ukiezinak:
- Programa informatikoak edo telefono mugikorretarako aplikazioak erostea edo garatzea.
- Patenteak, lizentziak, egile eskubideak eta/edo erregistratutako markak eskuratzea.

Diruz lagun daitekeen gutxieneko inbertsioa 5.000 €-koa izango da, BEZik gabe.

## Diruz lagun ez daitekeen gastua

- Oro har, lurrak eta etxe gisa erabiltzeko etxebizitzak erostea edo alokatzea.
- Telefono terminalak erostea.
- Komunikazio eta publizitate gastuak, aurreko puntuan jasotakoa salbu.
- Elementuak eta makinak lekuz aldatzea, eta/edo makinak edo ekipamenduak aldatzea edo ordeztea, aurreko puntuan jasotzen den kasuetan salbu.
- Negozio intsuldatzeak.
- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.

- Zuzeneko zergak, gizarte aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekarguak, isunak, zehapenak, finantza gastuak eta berme gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak, eta aseguruei lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratistari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Ekintzailetzari eta barne ekintzailetzari laguntzeko neurriaren laguntza kalkulatzeko barematu den gastua ez da gastu hautagarritzat hartuko nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza dibertsifikazioan egiten diren inbertsioei laguntzeko neurrian.

Pertsona onuradunak azpikontratatutako kanpoko enpresak ez dira berarekin pertsonalki eta/edo profesionalki inplikatuta egongo; era berean, ez dute loturarik izango zuzenean edo zeharka, akzio edo partaidetzen bidez.

Lotura hori dagoenean, dagokion Gobernu Zuzendaritzari baimena eskatu beharko zaio zerbitzua kontratatu aurretik hori onar dezan, hala, diruz lagun daitekeen gastutzat har dadin.

# 33. oinarria.- Balorazio irizpideak

Puntuazioa finkatzeko, aurrez zehaztutako irizpide batzuk baloratuko dira aurkeztutako dokumentazio guztia kontuan hartuta.

Irizpide horietako bakoitzari puntuazio bat emango zaio, eta, beraz, eskaera bakoitzak bere puntuazioa izango du, irizpide bakoitzari emandako puntuen batuketa egin ondoren.

Nekazaritzako dibertsifikazioa sustatze aldera –hori da Mendineten Estrategiaren ardatz nagusietako bat–, neurri hori bitan banatzen da: nekazaritza dibertsifikaziorako inbertsioak eta jarduera nagusia nekazaritza ez duten onuradunentzako inbertsioak.

Lehenengo balorazio irizpidea Mendineten onartutako Estrategiarekin lotuta dago, eta, hura argitzeko, bertan lehenetsitako aukera eremuak identifikatzen dira jarraian:

| 1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura |
|---|
| · Gaur egungo jarduera turistikoen eta aisialdiko eta abenturako jardueren eskaintza zabaltzen duten proiektuak.<br>· Goi mailako sukaldaritzako eta tokiko produktuetako proiektu gastronomikoak.<br>· Landa inguruneko turismo ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan zehaztutako landa ostatuak. |
| 2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak |
| · Nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzaren sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkioten proiektuak. |

| |
|---|
| 3. SEKTOREA: Ekonomia zirkularra |
| · Negozio eredu zirkularra duten proiektuak: ekodiseinua, birziklapena, birmanufaktura, berreskurapena, birsalmenta eta erabilera partekatuko plataformak. |
| 4. SEKTOREA: Osasuna eta ongizatea |
| · Osasun eta ongizate zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak. |
| 5. SEKTOREA: Bioteknologia |
| · Bioteknologiarekin lotutako proiektuak. |
| 6. SEKTOREA: Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen industria |
| · K1 eta K2 guneetako dendak edo tabernak/jatetxeak. Horiek K3 eta K4 eremuetan lehenetsiko dira, baldin eta populazio guneetan halako zerbitzurik ez badago.<br>· Zerbitzu anitzeko eskaintza duten dendak edo tabernak/jatetxeak.<br>· Kultura eta sormen industriarekin lotutako proiektuak.<br>· Herritarrentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak. |

## «Nekazaritza dibertsifikazioan» inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak

| BALORAZIO IRIZPIDEA | PUNTUAK (100 puntu) | |
|---|---|---|
| **MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA** | **20** | <u>ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA EREMUAK SEKTOREKA:</u><br><br>Sektorearen arabera lehenetsitako aukera-eremuren batekin bat badator: 10 puntu<br>Bat ez badator: 0 puntu<br><br><u>ZEHARKAKO ARDATZAK:</u><br><br>- Asoziazionismoa eta sareko lana proposatutako proiektuetan.<br>- Belaunaldien arteko erreleboa.<br>- Gainerako intsuldaketak.<br>- Emakumeen, gazteen eta kolektibo kalteberen enplegua sustatzea.<br>- Jasangarritasuna.<br>- Hornitzaileak/Tokiko produktua.<br>- Mota horretako enpresa bakarra udalerrian.<br>- Babestutako eremu naturalean dagoen enpresa. |

| | | |
|---|---|---|
| | | • *4 ardatz betetzen baditu: 10 puntu*<br>• *3 ardatz betetzen baditu: 8 puntu*<br>• *2 ardatz betetzen baditu: 5 puntu*<br>• *Ardatz 1 betetzen badu: 2 puntu*<br>• *Ardatzik betetzen ez badu: 0 puntu*<br>*Belaunaldien arteko erreleboaren ardatzak puntuazio bikoitza izango du, hau da, betekizun hori betetzen bada, 2 puntuazio ardatz hartuko dira kontuan.<br>**Pertsona zaurgarri edo/eta gazte batek bere lanpostua sortzen badu, Emakume, gazte eta talde ahulen enplegua sustatzeko ardatza hartuko da kontuan. |
| **KALTEBERATASUN MAILA** | **20** | JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA<br>• k1: 20 puntu<br>• k2: 12 puntu<br>• k3: 8 puntu<br>• k4: 5 puntu |
| **ESKUALDEKO ESTRATEGIARA EGOKITZEA** | **15** | Mendineteko Estrategian lehenetsitako aukera-eremuen gainean eskualde bakoitzean ezarritako lehentasunetara zenbateraino egokitzen den baloratuko da:<br>• Altua: 15 puntu<br>• Batez bestekoa: 10 puntu<br>• Baxua: 5 puntu<br>• Lehenetsi gabea: 0 puntu |
| **PROIEKTUA** | **10** | |
| Tutoretza ziurtagiria | 5 | Egiaztagiria aurkeztuta<br>• Tutoretza du: 5 puntu<br>• Ez du tutoretzarik: 0 puntu |
| Enplegua sortzea | 5 | SORTUTAKO LANPOSTU KOPURUAREN ARABERA (kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako orduen gutxienez % 50eko enpleguak izan beharko dira)<br>• 2 lanpostu edo gehiago: 4 puntu<br>• Lanpostu 1: 3 puntu<br>• Ez du lanposturik sortzen: 0 puntu<br>(*Lortutako puntuazioari puntu 1 gehituko zaio sortutako lanpostu hori emakumea bada edo, 2 lanposturen edo gehiagoren kasuan, erdia gutxienez emakumeak badira)<br>Aurreikuspen horietan edozein aldaketa egonez gero, Landa Garapenaren eta Europar Politiken Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta laguntzak ematean aldaketak egon daitezke. (Ikus 34. apartatua) |

| **TALDE SUSTATZAILEA** | **35** | |
|---|---|---|
| Lurraldearekiko lotura | 6 | ERAKUNDE ESKATZAILEAREN KOKAPENAREN ARABERA:<br>Egoitza soziala LEADER eremuan (pertsona fisikoen kasuan, kontuan hartuko dira autonomo gisa duten antzinatasuna eta erroldatze data)<br>• Euskadiko LEADER eremuan > 5 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 6 puntu<br>• LEADER eremuan > 3 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 4 puntu<br>• LEADER eremuan > 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 2 puntu<br>• Gainerako eremuetan < 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea: 0 puntu |
| Prestakuntza eta esperientzia Laguntzaren xede den proiektuari lotuta | 8 | BETI ZIURTAGIRI EDO FROGAGIRIEKIN<br>• Prestakuntza > 500 ordu: 4 puntu<br>• Esperientzia > 2 urte: 4 puntu<br>• Prestakuntza > 200 ordu: 2 puntu<br>• Esperientzia > 1 urte: 1 puntu<br>• Prestakuntza > 100 ordu: 1 puntu<br>• Prestakuntza egiaztatu gabe: 0 puntu<br>• Esperientzia egiaztatu gabe: 0 puntu |
| Enpresaren tamaina | 6 | • Mikroenpresa: 6 puntu<br>• Enpresa txikia: 4 puntu<br>• Enpresa ertaina: 2 puntu |
| Pertsona sustatzailea | 15 | • Jarduera nagusia nekazaritza duen emakumea: 15 puntu<br>*8/2015 Legea, urriaren 15ekoa, Emakume Nekazarien Estatutuari buruzkoa.<br>Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 15 puntu lortzeko, gutxienez bazkideen %50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren %50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da. |

## «Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» inbertsioak egiteko azpineurriaren irizpideak

| BALORAZIO IRIZPIDEA | PUNTUAK (100 puntu) | |
|---|---|---|
| **MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA** | **20** | ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA EREMUAK SEKTOREKA:<br><br>Sektorearen arabera lehenetsitako aukera-eremuren batekin bat badator: 10 puntu<br>Bat ez badator: 0 puntu<br><br>ZEHARKAKO ARDATZAK:<br>- Asoziazionismoa eta sareko lana proposatutako proiektuetan.<br>- Belaunaldien arteko erreleboa.<br>- Gainerako intsuldaketak.<br>- Emakumeen, gazteen eta kolektibo kalteberen enplegua sustatzea.<br>- Jasangarritasuna.<br>- Hornitzaileak/Tokiko produktua.<br>- Mota horretako enpresa bakarra udalerrian.<br>- Babestutako eremu naturalean dagoen enpresa.<br>• *4 ardatz betetzen baditu: 10 puntu*<br>• *3 ardatz betetzen baditu: 8 puntu*<br>• *2 ardatz betetzen baditu: 5 puntu*<br>• *Ardatz 1 betetzen badu: 2 puntu*<br>• *Ardatzik betetzen ez badu: 0 puntu*<br>*Belaunaldien arteko erreleboaren ardatzak puntuazio bikoitza izango du, hau da, betekizun hori betetzen bada, 2 puntuazio ardatz hartuko dira kontuan.<br>** Pertsona zaurgarri edo/eta gazte batek bere lanpostua sortzen badu, Emakume, gazte eta talde ahulen enplegua sustatzeko ardatza hartuko da kontuan. |
| **KALTEBERATASUN MAILA** | **20** | JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA<br>• k1: 20 puntu<br>• k2: 12 puntu<br>• k3: 8 puntu<br>• k4: 5 puntu |
| **ESKUALDEKO ESTRATEGIARA EGOKITZEA** | **15** | Mendineteko Estrategian lehenetsitako aukera-eremuen gainean eskualde bakoitzean ezarritako lehentasunetara zenbateraino egokitzen den baloratuko da:<br><br>• Altua: 15 puntu<br>• Batez bestekoa: 10 puntu<br>• Baxua: 5 puntu<br>• Lehenetsi gabea: 0 puntu |

| | | |
|---|---|---|
| **PROIEKTUA** | **15** | |
| Tutoretza ziurtagiria | 5 | Egiaztagiria aurkeztuta<br>• Tutoretza du: 5 puntu<br>• Ez du tutoretzarik: 0 puntu |
| Enplegua sortzea | 10 | SORTUTAKO LANPOSTU KOPURUAREN ARABERA (kasu bakoitzean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboan ezarritako orduen gutxienez % 50eko enpleguak izan beharko dira)<br>• 2 lanpostu edo gehiago: 8 puntu<br>• Lanpostu 1: 5 puntu<br>• Ez du lanposturik sortzen: 0 puntu<br>(*Lortutako puntuazioari 2 puntu gehituko zaizkio sortutako lanpostu hori emakumezkoa bada edo, 2 lanpostu edo gehiagoren kasuan, erdiak gutxienez emakumeak badira)<br>Aurreikuspen horiekiko edozein desbideratze Landa Garapeneko eta Europar Politiketako Zuzendaritzari jakinarazi beharko zaio, eta laguntza emateko modua aldatu ahal izango da (ikus 34. atala). |
| **TALDE SUSTATZAILEA** | **30** | |
| Lurraldearekiko lotura | 9 | ERAKUNDE ESKATZAILEAREN KOKAPENAREN ARABERA:<br>Egoitza soziala LEADER eremuan (pertsona fisikoen kasuan, kontuan hartuko dira autonomo gisa duten antzinatasuna eta erroldatze data)<br>• Euskadiko LEADER eremuan > 5 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 9 puntu<br>• LEADER eremuan > 3 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 6 puntu<br>• LEADER eremuan > 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala bertan izatea: 3 puntu<br>• Gainerako eremuetan < 1 urte erroldatuta egotea edo egoitza soziala izatea: 0 puntu |
| Prestakuntza eta esperientzia | 10 | BETI ZIURTAGIRI EDO FROGAGIRIEKIN<br>• Prestakuntza > 500 ordu: 5 puntu<br>• Esperientzia > 2 urte: 5 puntu |

| | | |
|---|---|---|
| | | • Prestakuntza > 200 ordu: 3 puntu<br>• Esperientzia > 1 urte: 3 puntu<br>• Prestakuntza > 100 ordu: 1 puntu<br>• Prestakuntza egiaztatu gabe: 0 puntu<br>• Esperientzia egiaztatu gabe: 0 puntu |
| Enpresaren tamaina | 6 | • Mikroenpresa: 6 puntu<br>• Enpresa txikia: 4 puntu<br>• Enpresa ertaina: 2 puntu |
| Pertsona sustatzailea | 5 | • Emakumea: 5 puntu<br>Pertsona fisiko batek baino gehiagok osatzen duten pertsona juridikoen kasuan, 5 puntu lortzeko, gutxienez bazkideen %50 emakumezkoak direla eta gutxienez kapital sozialaren %50 bazkide emakumezkoen esku dagoela justifikatu beharko da. |

# 34. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak

Onuradunak dirulaguntza eman zen helburu zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak aldi honetan: gauzatzen denetik, bost urtez gutxienez, erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eta bi urtez gutxienez, gainerako ondasunen kasuan.
Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzen diren kasuan, onuradunak dirulaguntza ematen dion ziurtagiria aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat etorriz.
Laguntzaren zenbatekoa zehazteko, enplegu-sorkuntza hartu bada aintzat proiektuen balorazio-irizpide gisa, enplegu horrek inbertsioak eraginkor dauden unean sortua beharko du, eta sortu zenetik hurrengo hiru urteetan gutxienez eutsi beharko zaio.

# 35. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa

«Nekazaritza dibertsifikazioa» inbertsioen azpineurrian jasotako inbertsioen kasuan, %25ekoa izango da gutxienekoa eta %70ekoa gehienekoa.

«Nekazaritza dibertsifikazioan» egindako inbertsioen neurrian laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 30 puntu.

«Nekazaritzakoak ez diren enpresak» inbertsioen azpineurriari dagokionez, diruz lagun daitekeen inbertsioaren %25 izango da gutxienekoa, eta diruz lagun daitekeen inbertsioaren %50 gehienekoa.

«Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioen neurrian laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 50 puntu.

Bi azpineurrietan, laguntzak muga bat izango du: 200.000 euro emango dira gehienez proiektuko deialdi bakoitzean.

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa:

# 1. lerroa: Nekazaritza dibertsifikazioan egindako inbertsioak

| PUNTUAK | LAGUNTZAREN% | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **100** | 70 | **82** | 59 | **64** | 47 | **46** | 36 |
| **99** | 69 | **81** | 58 | **63** | 47 | **45** | 35 |
| **98** | 69 | **80** | 57 | **62** | 46 | **44** | 35 |
| **97** | 68 | **79** | 57 | **61** | 45 | **43** | 34 |
| **96** | 67 | **78** | 56 | **60** | 45 | **42** | 33 |
| **95** | 67 | **77** | 55 | **59** | 44 | **41** | 33 |
| **94** | 66 | **76** | 55 | **58** | 43 | **40** | 32 |
| **93** | 66 | **75** | 54 | **57** | 43 | **39** | 31 |
| **92** | 65 | **74** | 54 | **56** | 42 | **38** | 31 |
| **91** | 64 | **73** | 53 | **55** | 41 | **37** | 30 |
| **90** | 64 | **72** | 52 | **54** | 41 | **36** | 29 |
| **89** | 63 | **71** | 52 | **53** | 40 | **35** | 29 |
| **88** | 62 | **70** | 51 | **52** | 40 | **34** | 28 |
| **87** | 62 | **69** | 50 | **51** | 39 | **33** | 28 |
| **86** | 61 | **68** | 50 | **50** | 38 | **32** | 27 |
| **85** | 60 | **67** | 49 | **49** | 38 | **31** | 26 |
| **84** | 60 | **66** | 48 | **48** | 37 | **30** | 25 |
| **83** | 59 | **65** | 48 | **47** | 36 | | |

# 2. lerroa: «Nekazaritzakoak ez diren enpresetan» egindako inbertsioak

| PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **100** | 50 | **87** | 43 | **74** | 37 | **61** | 30 |
| **99** | 49 | **86** | 43 | **73** | 36 | **60** | 30 |
| **98** | 49 | **85** | 42 | **72** | 36 | **59** | 29 |
| **97** | 48 | **84** | 42 | **71** | 35 | **58** | 29 |
| **96** | 48 | **83** | 41 | **70** | 35 | **57** | 28 |
| **95** | 47 | **82** | 41 | **69** | 34 | **56** | 28 |
| **94** | 47 | **81** | 40 | **68** | 34 | **55** | 27 |
| **93** | 46 | **80** | 40 | **67** | 33 | **54** | 27 |
| **92** | 46 | **79** | 39 | **66** | 33 | **53** | 26 |
| **91** | 45 | **78** | 39 | **65** | 32 | **52** | 26 |
| **90** | 45 | **77** | 38 | **64** | 32 | **51** | 25 |
| **89** | 44 | **76** | 38 | **63** | 31 | **50** | 25 |
| **88** | 44 | **75** | 37 | **62** | 31 | | |

# 36. oinarria.- Justifikatzea eta ordaintzea

## ORDAINKETA

Neurri honi dagokion ordainketa inbertsioa egin ondoren egingo da, justifikazio agiriak aurkeztuta eta zuzendaritzako teknikariek ziurtagiria egin ondoren.

Neurri honetan bi zati ordaindu ahal izango dira interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, pertsona onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe badaude, ez da ordainketa partzialik egingo hura eratu arte.

## JUSTIFIKAZIOA

Inbertsioa edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da honako hauen bidez:

- Egindako jarduerak justifikatzeko memoria bat, dirulaguntzaren xedeko proiektua betetzeari buruzko informazioa jasotzen duena, inbertsioen argazkiak ere sartu beharko ditu, eta sexuaren arabera bereizitako informazioa, emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei eta, entitatearen eta haren plantillaren titularrei buruz.

- Fakturak eta ordainagiriak aurkeztea, bai eta laguntzaren entitate onuradunaren izenaren baliokidea den balio bereko gainerako frogagiriak ere. Finantza-errentamenduaren kasuan, eragiketa amaitzean ondasuna eskuratzeko betebeharra ezartzen duen kontratua.
  Dirulaguntzak arautzen dituzten apartatuetan berariaz aurkakoa xedatu ezean, egindako gastutzat joko da benetan ordaindu dena dirulaguntza araudi erregulatzaileak zehazten duen justifikazio-aldia amaitu aurretik.

  Dirulaguntzaren onuraduna enpresa bat bada, merkataritza-eragiketetan egindako gastu diruz lagungarriak sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeetan ordaindu beharko dira, edo, halakorik ezean, Merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean ezarritako epeetan.

  - Fakturen eta ordainagirien laburpen-taula xehatua, Excel formatuan, datu hauek barne hartuz: fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, enpresa hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula hau egiteko, eredu hauek erabiliko dira:
    - LEADER 2026 programa – II. neurria, nekazaritzakoak ez diren enpresetan eta nekazaritza-dibertsifikazioan inbertsioak egiteko laguntzak.
      - https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/leader-inbertsioak/web01-tramite/eu/

  - Pertsonifikaturiko erakunde bat eratzearen baldintzapean badago laguntza, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.

- Laguntza jasotzeko manuzko baimenak eta lizentziak aurkeztu behar badira eta laguntza-eskabidea egitean eman gabe badaude, haiexek aurkeztu beharko dira, obra-lizentzia izan ezik, eskatzen den egunean onartuta egon behar baitu edo aldeko hirigintza-txostena eduki behar baitu.
- Eskudiruzko ordainketa bidezko justifikazioen kasuan, eta hornitzaile bakoitzeko, ezin izango dira eskudirutan ordaindu 1.000 euroko edo gehiagoko operazioak (BEZa barne) edo atzerriko dibisetan kontrabalio hori dutenak, operazioan parte hartzen dutenetakoren batek enpresari edo profesional gisa parte hartzen badu. Hala ere, muga hori 10.000 eurokoa edo atzerriko dibisetan kontrabalioa izango da, baldin eta ordaintzailea pertsona fisikoa bada, zerga-helbidea Espainiatik kanpo duela justifikatzen badu eta erosketa enpresaburu edo profesional gisa egiten ez badu. Adierazitako zenbatekoak kalkulatzeko, ondasunen entrega edo zerbitzuen prestazioa osa dezaketen eragiketa edo ordainketa guztien kopuruak batuko dira.
- Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen teknikari batek sinatutako obren ziurtagiriak, bai partzialak bai amaierakoak, aurkeztu beharko dira, obrak gauzatu direla frogatzeko.
- Era berean, diruz lagundu daitekeen inbertsioaren edo gastu guztizkoaren % 20ko mugarekin, justifikatutzat jo ahal izango dira bai onuradunak berak egindako lanak eta bai onuradunaren ingurukoak izanik enpresariak ez direnek edo hala ez dihardutenek egindako lanak ere. Kasu horretan, hornitzailearen faktura ordainduen bitartez justifikatu beharko dira materialak, eta eskulana, dagokion alorreko elkargokide den hirugarren profesional batek sinatutako ziurtagiriaren bitartez; ziurtagiri horretan direlako lanetan inbertitutako ordu guztien kostua zehaztu beharko da. Ezarritako baremo ofizialekin bat egin beharko da orduen balioespena; horrek ez du inoiz ere gaindituko merkatuan lan haiek duten balorazioa, ezta horretarako ezarritako prezioen oinarria ere, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean arlo honetan eskumena duen sailak argitaratuta. Edonola ere, onuradunari dokumentu gehigarria eskatu ahalko zaio.
- Erantzukizunpeko adierazpena, honako hau jasoko duena: faktura horiek ez direla aurkeztu beste laguntza batzuk justifikatzeko edo, hala badagokio, zein programari atxiki zaion eta faktura bakoitzeko jasotako dirulaguntzaren ehunekoa.
- Sortutako enpleguen egiaztagiriak.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, baimenik izan beharrik gabe, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkionak, egunean daudela, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan. Edonola ere, eskatzaileak aurre egin ahal izango dio organo kudeatzailearen egiaztapenari; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

# III. NEURRIA: BESTEREN KONTURA KONTRATATZEKO NEURRIA

## 37. oinarria.- Laguntzaren deskribapena

Laguntza honen bidez, mikroenpresetako eta enpresa txikietako besteren konturako langileak kontratatzen lagundu nahi da (enpresa ertainak ere sartuko dira, 1. eremu kalteberetan), baita pertsona bat kontratatzen duten enpresarien kasuan ere, landa eremuetako biztanleria mantentzen edo areagotzen lagunduko duten lanpostu berriak sortzeko helburuarekin.

«Lanpostuak sortzea» honela ulertuko da: establezimenduko lanpostu kopuru garbia handitzea aurreko urteko batez besteko kopuruaren aldean. Hortaz, kontuan hartutako epealdian sortutako ustezko lanpostu kopuruari epealdi horretan bertan deuseztatutakoak kendu beharko zaizkio.

Lanpostu kopuruaren handitze garbia kalkulatzeko, ez dira kontatuko praktikaldiko lan kontratuak, salbu eta behar bezala justifikatzen ez badira, dagokion entitatearekin sinatutako lankidetza hitzarmenarekin batera.

Neurri honek jarduera ekonomikoa sustatzen eta enplegua sortzen lagundu nahi du, horiek baitira programa honen Mendinet Estrategiaren ardatz nagusiak.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, salbu eta tokiko energia komunitateak; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete.

## 38. oinarria.- Pertsona onuradunak

Neurri hauen pertsona onuradun izan daitezke:

- LEADER eremuan, beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariak (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute.
- Mikroenpresak eta enpresa txikiak.
- 1. kalteberatasun maila duten inguruko enpresa ertainak.
- Beste pertsona juridiko mota batzuk, hala nola ondasun-erkidegoak eta sozietate zibilak.
- Pertsona fisikoak: banakako enpresariak.

## 39. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak

- Sortutako enplegua LEADER eremuan garatu behar da.
- Kontratazioa egina izatea aurreko deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren eta irekita dagoen deialdian eskaerak aurkezteko azkeneko egunaren artean.
- Nekazaritzako enpresek sustatutako proiektuetarako, sortuko den lanpostuak nekazaritzakoak ez diren jardueretarantz dibertsifikatzearekin lotuta egon behar du.
- Pertsona eskatzaile izateko betekizunak (puntu hauetako bat bete beharko da gutxienez):
  - Beren jarduerak nekazaritzakoak ez diren Euskadiko LEADER eremuetara dibertsifikatzen dituzten nekazariek (pertsona fisikoak edo juridikoak), betiere jarduera nagusia nekazaritza badute, edozein eremutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere.
  - Nekazaritzakoak ez diren mikroenpresek eta enpresa txikiek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, baita hiriguneetan ere, betiere negozioa Euskadiko LEADER eremuko gune fisiko batean garatzen badute.
  - Nekazaritzakoak ez diren enpresa ertainek edozein lekutan izan dezakete egoitza soziala, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
  - Pertsona fisikoak edozein lekutan egon daitezke erroldatuta, baita hiriguneetan ere, betiere dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako eremu fisikoa Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan badago.
  - Dirulaguntzaren xede den jarduera ekonomikoari lotutako espazio fisikorik egongo ez balitz Euskadiko LEADER eremuan, pertsona fisikoek Euskadiko LEADER eremuan egon beharko dute erroldatuta, ustiategiek eta enpresek Euskadiko LEADER eremuan izan beharko dute egoitza soziala eta enpresa ertainek Euskadiko LEADER eremuko K1 eremuan izan beharko dute egoitza soziala.

Gainera, erakunde eskatzaileak berak kudeatuko du jarduera ekonomikoa, eta onuraduna bada, neurriak dituen betebeharrak bete beharko ditu.

# 40. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa

5. oinarriko dokumentazio orokorraz gain honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Dibertsifikatzen duten nekazaritza enpresek:
  - Jarduera nagusia nekazaritza dela egiaztatzen duen agiria.
    - Baldintza hori egiaztatzeko, dagokion foru aldundiak emandako ziurtagiria edo
    - baldintza hori justifikatzen duten dokumentuak aurkeztu beharko dira:
      - Gizarte Segurantzako nekazaritzako erregimen berezian bere konturako langile gisa edo bere konturako langileen edo autonomoen erregimen berezian alta emanda dagoelako egiaztagiria, nekazaritza jardueraren arabera.
      - Azken ekitaldian PFEZan egindako nekazaritza etekinen deklarazioa.

        - Ustiategiaren titulartasunaren edo titularkidetasunaren egiaztapena.
    - Dibertsifikatzen duen emakume nekazariaren kasuan, nekazaritzako ustiategiaren titularra edo titularkidea, izaera hori egiaztatu beharko du.
- Pertsona fisikoek:
    - Pertsona fisikoa EAEtik kanpo erroldatuta badago, errolda agiria aurkeztu beharko du.
- Nortasun juridikorik gabeko taldeen eta ondasun erkidegoen kasuan, kide guztiek sinatutako agiri bat. Bertan, taldeko kide bakoitzak bere gain hartutako gauzatze konpromisoak jasoko ditu.
- Lan kontratua.
- Gizarte Segurantzan alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria.
- Enplegua sortu aurreko 12 hilabeteetan enpresak batez beste zenbat langile izan dituen egiaztatzen duen agiria.
- Kontratazioko hilabeteko langileen izen-zerrenda (lehen TC2) (eskuragarri dagoen unean)
-

# 41. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak

Sortutako enplegua eta horretarako ezarritako baldintzak eta betekizunak gutxienez 3 urtez mantendu beharko dira, kontratua sinatzen den unetik kontatzen hasita.

# 42. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza horiek ezin izango dute gainditu kontratatutako pertsonari dagokion bi urteko soldata gordinaren %35a, zergak eta nahitaezko gizarte kotizazioak aplikatu aurretik.

Laguntzaren zenbatekoa sortutako lanpostu bakoitzeko emango den kopuru finko bat izango da, betiere kontratatutako lanaldiaren arabera, hau da, zenbatekoa diruz lagunduko den lanpostuan pasatako denboraren araberakoa izango da. Edozelan ere, enplegua gutxienez %50ekoa izan beharko da, kasu bakoitzean dagokion hitzarmen kolektiboan ezarritako orduak kontutan izanik.

Laguntza taula honen arabera emango da (%100eko lanaldirako oinarria):

| Kalteberatasuna | Gizona | | Emakumea | Kolektibo kaltebera bateko gizona | Kolektibo kaltebera bateko emakumea |
|---|---|---|---|---|---|
| **K1** | 6.500 | | 7.000 | 7.000 | 7.500 |
| **K2** | 6.000 | | 6. 500 | 6.500 | 7.000 |
| **K3** | 5.500 | | 6.000 | 6.000 | 6.500 |
| **K4** | 5.000 | | 5.500 | 5.500 | 6.000 |

- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen pertsona bat bada, ezarritako laguntzaren zenbatekoa baino %10 gehiago emango da.
- Eskatzailea jarduera nagusia nekazaritza duen ustiategi baten emakume titularra edo titularkidea bada, edo emakumeen esku dauden ehuneko eta partaidetza sozialak gutxienez %50 diren pertsona juridikoa bada (elkartekideak bi badira), edo gainerako kasuetan gutxienez orekatua bada, %25eko igoera emango zaio ezarritako laguntzaren zenbatekoarekiko.
- Kontratu finko etenen kasuan, kontratatutako hilabeteen ehunekoa hartuko da kontuan.

Lehentasun irizpide hauen arabera emango da laguntza:

- Kalteberatasun maila: mailaka lehenetsiko da, lehentasun gehien duenetik (K1) gutxien duenera (K4).
- Eskatzaile mota: jarduera nagusia nekazaritza duten emakumeek sustatutako proiektuak lehenetsiko dira (jarduera nagusia nekazaritza duten gizonezkoen aurretik), eta, gero, emakumeak (gizonen aurretik).
- Enpresaren tamaina: mikroenpresak lehenetsiko dira enpresa txikien aurretik, eta enpresa txikiak enpresa ertainen aurretik.
- Kontratatutako pertsona mota: talde kalteberetako emakumeak kontratatzen dituzten proiektuak lehenetsiko dira (baldintza berberetan dauden gizonen aurretik), eta, azkenik, emakumeak (gizonen aurretik).
- Lanaldi mota: proiektuak lanaldi motaren arabera lehenetsiko dira, mailaz maila, %100etik %50era.

Lehenespen horiek eginda ere, proiektuetako batzuk egoera berean badaude, jaso beharreko laguntza proposamena kontuan hartzen da, eta kopuru hori txikienetik handienera lehenesten da.

# 43. oinarria.- Dirulaguntza ordaintzea eta justifikatzea

## ORDAINKETA

Laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, kontratazioa behar bezala egin dela eta laguntza emateko eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatu ondoren, deialdi honetan ezartzen denarekin bat etorriz. Diruz lagundutako aldia (3 urte) bukatu ondoren, eta hala eskatzen zaiolarik, dirulaguntzaren xedea bete dela justifikatu beharko du enpresa edo entitateak, ematean finkatutako moduan.

## JUSTIFIKAZIOA

Zuzendaritzako teknikariek gastuaren eraginkortasuna egiaztatu eta ziurtatuko dute.

Honako hauek aurkeztuko dira gastua behar bezala egin dela egiaztatzeko:

- Justifikazio-dataren aurreko hilabeteko langileen izen-zerrenda, eskabidearekin batera aurkeztutako dokumentazioan jasotako baldintzetan aldaketarik izan bada

salbu.

- Erantzukizunpeko adierazpena, zehaztuko duena dokumentazio hori ez dela aurkeztu beste dirulaguntza batzuk justifikatzeko.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, baimenik izan beharrik gabe, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkionak, egunean daudela, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan. Edonola ere, eskatzaileak aurre egin ahal izango dio organo kudeatzailearen egiaztapenari; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

# IV. NEURRIA: GUNEAK GAITZEKO NEURRIA

## 44. oinarria.- Laguntzaren deskribapena

Neurri honek gune horietan kokatuko diren hirugarren pertsonentzako ekonomia jarduerarako guneak sortzea edo egokitzea du

Guneek/lokalek hainbat erabilera izan ditzakete (coworkinga, bulegoak, ostalaritza, etab.). Eremuak sustatzen laguntzea Euskadiko landa ingurunean ekintzailetza eta jarduera ekonomikoa sustatzea da, eta ardatz horretan oinarritzen da, hain zuzen ere, Mendineten Estrategia.

Nekazaritzako elikagaien inguruko proiektuak garatzeko espazioak prestatzeko laguntzak emango dira, betiere biztanleei zerbitzu bat ematen badiete eta erabilera partekatukoak badira.

Laguntza hauetatik kanpo geratzen dira erabilera turistikoko etxebizitza partikularrak, erabilera turistikoko etxebizitza partikularretako logelak, ikastetxe arautuak eta energia ekoizten duten enpresak, salbu eta tokiko energia komunitateak; dena den, mikroenpresak badira, laguntza izan dezakete. Gainera, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) diruz lagun ditzakeen kontzeptuek ez dute dirulaguntzarik jasoko.

## 45. oinarria.- Erakunde onuradunak

Erakunde onuradun izan daitezke:

- Toki erakundeak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeko 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.
    - Udalerria.

- Kontzejuak eta udalerriarena baino eremu txikiagoko beste lurralde erakundeak, lurralde bakoitzeko foru araudian eta toki araubidearen gaineko oinarrizko legerian ezarritakoaren arabera.
- Udalerrien mankomunitateak.
- Arabako lurralde historikoko kuadrillak.
- Beste zeinahi erakunde, baldin eta tokiko lurralde erakunde zenbait biltzen baditu, dagokion izendapen bereziarekin, lege honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudian ezarritakoaren arabera.

- Tokiko sektore publiko instituzionala (tokiko erakunde autonomoak, tokiko enpresa erakunde publikoak eta tokiko titulartasun publikoa duten merkataritza sozietateak).
- Landa Garapeneko Elkarteak.
- Irabazi-asmorik gabeko entitateak (fundazioak, elkarteak, etab.).

# 46. oinarria.- Hautagarritasun baldintzak

- Inbertsioa LEADER eremu batean egin behar da.
- Birjartze eta/edo mantentze lanak egiteko inbertsioetarako proiektuek muga bat dute: pertsona onuraduna behin izango da denboraldi osoan.
- Proiektua 2025eko urtarrilaren 1aren ondoren hastea, eta laguntza eskaera aurkezterakoan amaituta ez egotea (ez amaitu izanaren akta).
- Memoria Mendinetek duen ereduaren arabera prestatu beharko da. Bertan, egingo den obraren edo jarduketaren alderdi nagusiak deskribatuko dira eta neurriaren helburuak betetzen direla egiaztatuko da.
- Eremuaren jabea izatea edo kudeaketa lagatzeko edo enkargatzeko dokumentu bat aurkeztea, gutxienez kudeaketa planean adierazitako denbora tarte bererako.

# 47. oinarria.- Dokumentazio espezifikoa

5. oinarriko dokumentazio orokorraz gain, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Memoria Mendinetek duen ereduaren arabera prestatu beharko da. Bertan, egingo den obraren edo jarduketaren alderdi nagusiak deskribatuko dira eta neurriaren helburuak betetzen direla egiaztatuko da.
- Eraikuntza, birgaitze edo zaharberritze obrak egin behar badira:
    - Proiektu tekniko bat behar den ala ez justifikatuko duen udal ziurtagiria.
    - Proiektu teknikoa (hala badagokio). Proiektu teknikoa aurkezten bada, ez da beharrezkoa izango aurreko puntuan aipatu den udal ziurtagiri justifikatzailea.
    - Eraikuntza, birgaitze edo zaharberritze lanak egin behar badira, beharrezko baimenak eta lizentziak edo aldeko hirigintza txostena, udalen kasuan izan ezik.
- Proiektua gauzatuko den lursail edo higiezinen jabetza, gozamena, errentamendua edo prekarioa egiaztatzen duen dokumentazioa, eremu fisikoa badu edo pertsona juridikoa bada.
- Eskuratutako higiezinen tasazioak, betiere lurrak eta higiezinak bereizita (hala badagokio).

- Proiektuak hainbat fase baditu eta proiektu tekniko bat edo memoria baloratu bat behar baditu, eskatzen duen faseari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko da, eta, gainera, proiektu teknikoa edo proiektuaren faseei buruzko memoria xehatua aurkeztu beharko da.
- Pertsona onuradunen kasuan, toki erakundeak salbu:
    - Eratze eskritura, estatutuak eta dagozkion erregistro publikoetan inskribatuta egotearen egiaztagiria.
- Toki-entitateak proiektua abian jartzeko eskuordetzen edo enkargatzen duen dokumentua (hala badagokio).
- Aurrekontuak, proformako fakturak edo fakturak. Ez dira onartuko 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago egindako fakturak.

Legerian[27] ezarritakoa bete beharko du. Nolanahi ere, kontratu txikien kasuan, gutxienez hiru eskaintza eskatuko ditu kontratazio-organoak, eta horiek espedientean sartuko dira hautatutako eskaintzaren justifikazioarekin batera, proposamen ekonomiko abantailatsuena ez bada.

Eskaerarekin batera hiru aurrekontuak/fakturak/proformako fakturak aurkezten ez badira, dagokion inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

Aurrekontuak eta proformako fakturak euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez edo frantsesez aurkeztu beharko dira, eta, gutxienez, honako informazio hau jaso beharko dute:

- Bezeroaren izena.
- Hornitzailearen izena.
- Kontzeptua.
- Zerga-oinarriaren eta BEZaren xehakapena.

Fakturek, ordea, aurretik adierazitakoa eduki beharko dute, baita zenbakia eta data ere.

- Laburpen-taula, Excel formatuan, aurrekontuen, proformako fakturen eta fakturen xehetasunekin; bertan, aukeratutako eskaintza zein den adieraziko da, hemen eskuragarri dagoen ereduaren arabera:
- LEADER 2026 programa – IV. neurria - Guneak gaitzeko laguntzak.

https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/web01-tramite/eu/

# 48. oinarria.- Diruz lagun daitezkeen gastuak

Honako hauek izango dira diruz lagun daitezkeen partidak:

- Ondasun higiezina:
    - Eraikinak erostea.
- Obra:

[27] 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora.

- Eremuak eta lotutako beste azpiegitura batzuk urbanizatzea, eraikitzea eta birgaitzea.
- Arkitektoen eta ingeniarien ordainsariak: obran diruz lagun daitekeen kostuaren %15 gehienez.

- Makinak, altzariak, tresnak eta ekipo informatikoak (softwarea eta hardwarea).
- Webguneak diseinatzea, hedatzeko eta sustatzeko.
- Birjartzeko inbertsioak, proiektuak azkenekoz egokitu zenetik 5 urte baino gehiago baditu
- Proiektuari lotutako azterlanak: diruz lagun daitekeen kostuaren %10 gehienez.

## Diruz lagun ez daitezkeen gastuak

- Oro har, lursailak eta etxebizitzak, eta etxerako ibilgailuak erostea edo alokatzea.
- Mantentze gastuak eta bestelako funtzionamendu gastuak, langile gastuak barne.
- BEZa, Estatuko legeriaren arabera berreskuratzeko modukoa ez denean salbu.
- Zuzeneko zergak, gizarte aurreikuspeneko edozein erregimenetarako kontribuzioak eta berreskuratu daitezkeen zeharkako zergak.
- Mota guztietako interesak, errekarguak, isunak, zehapenak, finantza gastuak eta berme gastuak, prozedura judizialen gastuak, errentamendu kontratuekin lotutako gastuak, gastu orokorrak eta gastu arruntak, eta aseguruei lotutako gastuak.
- Aldaketek edo beste edozein arrazoik kontratistari eragindako deskontuak eta itzulketak edo ordainketak.

Erakunde eskatzailea erakunde pribatua bada, eskatzaileak gutxienez hiru hornitzaileren eskaintzak aurkeztu beharko ditu (haien kontzeptuek elkarren artean alderatzeko modukoak izan behar dute), zerbitzu edo ondasun horren ezaugarri bereziengatik merkatuan horiek egiten, ematen edo hornitzen dituen behar besteko erakunderik ez dagoenean izan ezik. Aurkeztutako eskaintzetatik bat hautatzeko, efizientzia eta ekonomia irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikoki abantailatsuena ez hautatzearen arrazoia.

Eskatzailea erakunde publikoa bada, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean xedatutakoa bete beharko da. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora. Hala ere, kontratu txikien kasuan, kontratazio-organoak gutxienez hiru eskaintza eskatuko ditu, eta horiek espedientean sartuko dira, hautatutako eskaintzaren justifikazioarekin batera, hori ez bada proposamen ekonomiko onuragarriena.

Bi kasuetan, eskaerarekin batera hiru eskaintzak aurkezten ez badira, inbertsioa edo gastua ez da kontuan hartuko diruz lagun daitekeen zenbatekoa kalkulatzeko.

# 49. oinarria.- Balorazio irizpideak

Lehenengo balorazio irizpidea Mendineten onartutako Estrategiarekin lotuta dago, eta, hura argitzeko, bertan lehenetsitako aukera eremuak identifikatzen dira jarraian:

| |
|---|
| 1. SEKTOREA: Turismoa, gastronomia eta aisia eta abentura |
| · Gaur egungo jarduera turistikoen eta aisialdiko eta abenturako jardueren eskaintza zabaltzen duten proiektuak.<br>· Goi mailako sukaldaritzako eta tokiko produktuetako proiektu gastronomikoak.<br>· Landa inguruneko turismo ostatuko establezimenduak arautzen dituen apirilaren 16ko 199/2013 Dekretuan zehaztutako landa ostatuak. |
| 2. SEKTOREA: Nekazaritzako elikagaien industriarako eta lehen sektorerako zerbitzu osagarriak |
| · Nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzaren sektoreari zerbitzu osagarriak eskaintzen dizkioten proiektuak. |
| 3. SEKTOREA: Ekonomia zirkularra |
| · Negozio eredu zirkularra duten proiektuak: ekodiseinua, birziklapena, birmanufaktura, berreskurapena, birsalmenta eta erabilera partekatuko plataformak. |
| 4. SEKTOREA: Osasuna eta ongizatea |
| · Osasun eta ongizate zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak. |
| 5. SEKTOREA: Bioteknologia |
| · Bioteknologiarekin lotutako proiektuak. |
| 6. SEKTOREA: Merkataritza, zerbitzuak, jatetxeak, artisautza eta sormen industria |
| · K1 eta K2 guneetako dendak edo tabernak/jatetxeak. Horiek K3 eta K4 eremuetan lehenetsiko dira, baldin eta populazio guneetan halako zerbitzurik ez badago.<br>· Zerbitzu anitzeko eskaintza duten dendak edo tabernak/jatetxeak.<br>· Kultura eta sormen industriarekin lotutako proiektuak.<br>· Herritarrentzat funtsezkoak diren zerbitzuak eskaintzen dituzten proiektuak. |

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek eta horien balorazioa hartuko dira kontuan:

| ***BALORAZIO IRIZPIDEA*** | **PUNTUAK (100 puntu)** | |
|---|---|---|
| ***MENDINETEN ESTRATEGIARA EGOKITZEA*** | **20** | ESTRATEGIAN LEHENETSITAKO AUKERA EREMUAK SEKTOREKA:<br>• Lerroren batekin bat badator: 10 puntu<br>• Ez badator bat: 0 puntu<br>• Coworking eremuak, zehaztu gabeko erabilera duen proiektua eta beste batzuk: 0 puntu<br>ZEHARKAKO ARDATZAK:<br>- Asoziazionismoa eta sareko lana.<br>- Jasangarritasuna.<br>- Udalaz gaindikoa izatea.<br>Puntuazioa:<br>• 2 ardatz edo gehiago betetzen baditu: 10 puntu<br>• Ardatz 1 betetzen badu: 5 puntu<br>• Ardatzik betetzen ez badu: 0 puntu |
| ***KALTEBERATASUN MAILA*** | **20** | JARDUERA EKONOMIKOAREN DIBERTSIFIKAZIO EREMURAKO EGINDAKO LEADER EREMUAREN KARAKTERIZAZIOAREN ARABERA<br>• k1: 20 puntu<br>• k2: 12 puntu<br>• k3: 8 puntu<br>• k4: 5 puntu |
| ***PROIEKTUA*** | **35** | |
| *Beharren justifikazio txostena* | **15** | EGOKIA ETA/EDO BEHARREZKOA<br>Eskualdean ez dago jarduera ekonomiko edo zerbitzu hori emango duen beste gunerik: 10 puntu<br>Udalerrian ez dago jarduera ekonomiko edo zerbitzu hori eskaintzen duen beste gunerik: 7 puntu<br>Udalerrian badaude beste gune batzuk, baina behar hori badagoen ebidentziak daude: 5 puntu<br>Udalerrian badaude beste gune batzuk, eta EZ dago behar hori dagoen ebidentziarik: 0 puntu<br>PROIEKTUAN INTERESA DUTEN ENPRESAK BADITUZTE<br>Enpresa interesdunak dauden ebidentziak badaude: 5 puntu<br>Enpresa interesdunak dauden ebidentziarik ez badago: 0 puntu. |
| *Eremuan egongo diren negozio unitateen kopurua* | 10 | EREMUAN EGON DAITEZKEEN NEGOZIO UNITATEEN KOPURUA KONTUAN HARTUTA:<br>• 3 edo gehiago egon badaitezke: 10 puntu<br>• 2 egon badaitezke: 8 puntu<br>• 1 egon badaiteke: 5 puntu<br>*Coworking eremuak negozio unitate bakar baten gisa hartuko dira. |

| | | |
|---|---|---|
| *Inbertsio bolumena* | 10 | PROIEKTUAREN INBERTSIO BOLUMENA:<br>○ > 300.000 €: 10 puntu<br>○ 100.000 € ≤ IB ≤ 300.000 €: 6 puntu<br>○ < 100.000 €: 3 puntu |
| ***TALDE SUSTATZAILEA*** | **25** | |
| *Finantza gaitasuna* | 10 | FUNTS KONPROMETITUAK (proiektuaren guztizkoaren % kontuan hartuta)<br>• Finantzaketa >%75: 10 puntu<br>• %60 < Finantzaketa ≤ %75: 8 puntu<br>• %30 < Finantzaketa ≤ %60: 5 puntu<br>• %15 < Finantzaketa ≤ %30: 3 puntu<br>• Finantzaketa < %15: 0 puntu<br>Atal hau zenbatzeko, datuak egiaztatu beharko dira, aurrekontuko partida edo antzeko beste agiriren bat aurkeztuta (gerakinak, beste laguntza batzuk, bermeak…). |
| *Parte hartze publiko-pribatua* | 10 | ERAKUNDE PUBLIKOAK ETA PRIBATUAK BARNE HARTZEN DITUEN PROIEKTUA<br>Inplikatzeak esan nahi du alde guztiek baliabideak jartzeko konpromisoak hartzen dituztela: 10 puntu.<br>Ez dago lankidetzarik beste entitateekin: 0 puntu. |
| *Eskatutako gehieneko laguntza (EGL)* | 5 | ESKATUTAKO GEHIENEKO LAGUNTZA (EGL)<br>○ <75.000 €: 5 puntu<br>○ 75.000 € ≤ EGL ≤ 150.000 €: 3 puntu<br>○ >150.000 €: 0 puntu |

# 50. oinarria.- Onuradunen betebehar espezifikoak

Onuradunak dirulaguntza eman zen helburu zehatzerako erabili beharko ditu ondasunak aldi honetan: gauzatzen denetik, bost urtez gutxienez, erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunen kasuan, eta bi urtez gutxienez, gainerako ondasunen kasuan.

Ondorio horietarako, eta ondasun higiezinak eraiki, eskuratu edo birgaitzen diren kasuan, onuradunak dirulaguntza ematen dion ziurtagiria aurkeztu beharko du dagokion jabetza-erregistroan. Erregistro horretan, agiri hori ikusita, jabaria erabiltzeko mugaren erregistro-idazpena egingo da, hipoteka-legeriarekin bat etorriz.

# 51. oinarria.- Laguntzaren zenbatekoa

Laguntza horiek diruz lagun daitekeen inbertsioaren %80ra irits daitezke gehienez.

Era berean, proiektu bakoitzeko gehienez 200.000 €-ko laguntza ezarri da deialdi bakoitzeko.

Laguntza lortzeko eskatzen den gutxieneko puntuazioa: 50 puntu.

- 100 puntu: %80
- 50 puntu: %40

Lortutako puntuazioaren arabera, honela gauzatuko da proiektu bakoitzari esleitu beharreko laguntzaren ehunekoa:

| PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN % | PUNTUAK | LAGUNTZAREN% | PUNTUAK | LAGUNTZAREN% |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **100** | 80 | **87** | 70 | **74** | 59 | **61** | 49 |
| **99** | 79 | **86** | 69 | **73** | 58 | **60** | 48 |
| **98** | 78 | **85** | 68 | **72** | 58 | **59** | 47 |
| **97** | 78 | **84** | 67 | **71** | 57 | **58** | 46 |
| **96** | 77 | **83** | 66 | **70** | 56 | **57** | 46 |
| **95** | 76 | **82** | 66 | **69** | 55 | **56** | 45 |
| **94** | 75 | **81** | 65 | **68** | 54 | **55** | 44 |
| **93** | 74 | **80** | 64 | **67** | 54 | **54** | 43 |
| **92** | 74 | **79** | 63 | **66** | 53 | **53** | 42 |
| **91** | 73 | **78** | 62 | **65** | 52 | **52** | 42 |
| **90** | 72 | **77** | 62 | **64** | 51 | **51** | 41 |
| **89** | 71 | **76** | 61 | **63** | 50 | **50** | 40 |
| **88** | 70 | **75** | 60 | **62** | 50 | | |

# *52. oinarria.- Dirulaguntza justifikatzea eta ordaintzea*

## ORDAINKETA

Neurri honi dagokion ordainketa inbertsioa egin ondoren egingo da, justifikazio agiriak aurkeztuta eta Zuzendaritzako teknikariek ziurtatu ondoren.

Neurri honetan bi zati ordaindu ahal izango dira erakunde interesdunak hala eskatuta ekitaldi bakoitzeko, proiektuaren zati bat gauzatu dela egiaztatzeko agiriak aurkeztu ondoren.

Laguntza emateko unean, erakunde onuradunaren izaera bereganatzen duen erakundeari dagokion erregistroan eraketa eta inskripzioa oraindik egin gabe badaude, ez da ordainketa partzialik emango hura eratu arte.

## JUSTIFIKAZIOA

Inbertsioa edo gastua behar bezala egin direla egiaztatuko da dokumentazio honen bidez:

- Egindako jarduerak justifikatzeko memoria bat, dirulaguntzaren xedeko proiektua betetzeari buruzko informazioa jasotzen duena, inbertsioen argazkiak ere sartu beharko ditu, eta sexuaren arabera bereizitako informazioa, emandako zerbitzuaren onuradunei edo azken erabiltzaileei eta, entitatearen eta haren plantillaren titularrei buruz.
- Fakturak eta ordainagiriak aurkeztea, bai eta laguntzaren entitate onuradunaren izenaren baliokidea den balio bereko gainerako frogagiriak ere. Finantza-errentamenduaren kasuan, eragiketa amaitzean ondasuna eskuratzeko betebeharra ezartzen duen kontratua. Horrekin batera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, non zehaztuko baita fakturak eta gainerako

justifikazio-agiriak ez direla aurkeztu diruz laguntzeko moduko beste programa batzuk justifikatzeko; aitzitik, zehaztu beharko da diruz laguntzeko moduko zein programari esleitu zaion eta, faktura edo justifikazio-dokumentu bakoitzari dagokionez, zein den jasotako dirulaguntzaren portzentajea. Adierazpen hori justifikazio-inprimakian jasoko da.

Dirulaguntzak arautzen dituzten apartatuetan berariaz aurkakoa xedatu ezean, egindako gastutzat joko da benetan ordaindu dena dirulaguntza araudi erregulatzaileak zehazten duen justifikazio-aldia amaitu aurretik.

- Ordainketen fakturen eta ordainagirien laburpen-taula xehatua, Excel formatuan, datu hauek barne hartuz: fakturazioaren eta ordainketaren datak eta erreferentziak, enpresa hornitzailea, kontzeptua, zenbatekoa eurotan eta aplikatutako zergak. Taula hau egiteko, eredu hauek erabiliko dira:
    - LEADER 2026 programa – IV. neurria - Guneak gaitzeko laguntzak.
        - https://www.euskadi.eus/diru_laguntza/2025/leader-espazioak-egokitzea/web01-tramite/eu/

- Pertsonifikaturiko erakunde bat eratzearen baldintzapean badago laguntza, eraketa-akta, estatutuak eta dagokion erregistroan izena emanda egotearen ziurtagiria.
- Obrak egitearen ondoriozko gastuen kasuetan, eskumena duen teknikari batek sinatutako obren ziurtagiri partzialak eta azken ziurtagiriak aurkeztu beharko dira, obrak gauzatu direla frogatzeko.
- Erantzukizunpeko adierazpena, honako hau jasoko duena: faktura horiek ez direla aurkeztu beste laguntza batzuk justifikatzeko edo, hala badagokio, zein programari atxiki zaion eta faktura bakoitzeko jasotako dirulaguntzaren ehunekoa.
- Kontratu handia bada, udalek idazkari-kontu-hartzaile kargua duen pertsonaren ziurtagiria aurkeztu beharko dute, edo gainerako toki-erakundeek baliokidea den figura baten ziurtagiria, kontratazio publikoari buruzko araudia betetzeari buruzkoa, honako hauek aipatuta: aplikatutako araua, erabilitako prozedura, haren justifikazioa, eta kontratuaren argitalpena eta formalizazioa. Kontratu txikien kasuan, premia-txostena eta gastua onartzeko dokumentua aurkeztu beharko dira.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du, baimenik izan beharrik gabe, zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari dagozkionak, egunean daudela, hala xedatuta baitago Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan, bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduan. Edonola ere, eskatzaileak aurre egin ahal izango dio organo kudeatzailearen egiaztapenari; kasu horretan, dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko du.

# I. ERANSKINA ESKU HARTZEN DEN LURRALDEKO UDALERRIEN ZERRENDA

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| *Abadiño Abadiño-Zelaieta* | 4 |
| *Abadiño Gaztelua* | 3 |
| *Abadiño Gerediaga* | 4 |
| *Abadiño Mendiola* | 2 |
| *Abadiño Muntsaratz* | 4 |
| *Abadiño Urkiola* | 3 |
| Abaltzisketa Abaltzisketa | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Abanto* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Cotorrio* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena El Campillo* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Balastera* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena La Florida* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Calizas* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Carreras* | 4 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Las Cortes* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Los Castaños* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Murrieta* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Picón* | 3 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Putxeta* | 4 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena San Pedro* | 4 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Sanfuentes* | 4 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Santa Juliana* | 2 |
| *Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena Triano* | 3 |
| Aduna Aduna | 4 |
| *Agurain/Salvatierra Alangua* | 3 |
| *Agurain/Salvatierra Arrizala* | 4 |
| *Agurain/Salvatierra Egileor* | 3 |
| *Agurain/Salvatierra Opakua* | 3 |
| *Aia Aia* | 4 |
| *Aia Altzola* | 2 |
| *Aia Andatza* | 3 |
| Aia Arratola Aldea | 4 |
| Aia Arrutiegia | 3 |
| *Aia Elkano* | 3 |
| Aia Etxetaballa | 2 |
| *Aia Iruretaegia* | 2 |
| Aia Kurpidea | 2 |
| *Aia Laurgain* | 2 |
| *Aia Olaskoegia* | 2 |
| Aia Santio Erreka | 3 |
| Aia Ubegun Industrigunea | 4 |
| Aia Urdaneta | 3 |
| Aizarnazabal Aizarnazabal | 4 |
| Aizarnazabal Etxabe | 3 |
| Aizarnazabal Etxezarreta | 3 |

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| Aizarnazabal Mugitzagaina | 2 |
| Aizarnazabal Saiatz | 2 |
| Aizarnazabal Zubialdea | 3 |
| *Ajangiz Kanpantxu* | 3 |
| *Ajangiz Mendieta* | 3 |
| Albiztur Albiztur | 3 |
| *Alegia Alegia* | 4 |
| *Alegia Errotaldea* | 3 |
| *Alegia Langaurrealdea* | 3 |
| Alegría-Dulantzi Alegría-Dulantzi | 4 |
| Alegría-Dulantzi Egileta | 3 |
| *Alkiza Alkiza* | 2 |
| *Alonsotegi Alonsotegi* | 4 |
| *Alonsotegi Arbuio* | 3 |
| *Alonsotegi Irauregi* | 3 |
| *Altzaga Altzaga* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Altzo Altzo* | 3 |
| *Amezketa Amezketa* | 3 |
| *Amezketa Ergoiena* | 2 |
| *Amezketa Ugarte* | 2 |
| *Amorebieta-Etxano Aldana* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Astepe* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Autzagana* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Bernagoitia* | 3 |
| *Amorebieta-Etxano Boroa* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Dudea* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Etxano* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Euba* | 4 |
| *Amorebieta-Etxano Oromiño* | 2 |
| *Amoroto Elexalde* | 2 |
| *Amoroto Odiaga* | 2 |
| *Amoroto Ugaran* | 2 |
| *Amoroto Urrutia* | 2 |
| Amurrio Aloria | 2 |
| Amurrio Artomaña | 3 |
| Amurrio Baranbio | 3 |
| Amurrio Berganza-Onsoño-Aldama-Pardio-Mariaka | 2 |
| Amurrio Delika | 2 |
| Amurrio Larrinbe | 4 |
| Amurrio Lekamaña | 3 |
| Amurrio Lezama | 4 |
| Amurrio Saratxo | 3 |
| Amurrio Tertanga | 2 |
| *Andoain Buruntza* | 3 |
| *Andoain Goiburu* | 4 |
| *Andoain Leizotz* | 4 |
| *Andoain Sorabilla* | 4 |
| *Antzuola Antzuola* | 4 |
| *Antzuola Basalde* | 2 |

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| *Antzuola Galartza* | 2 |
| *Antzuola Irimoegibarrena* | 2 |
| *Antzuola Irimoegigoena* | 2 |
| *Antzuola Lizarraga* | 3 |
| *Antzuola Uzarraga* | 2 |
| Añana Atiega/Atiaga | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Añana Salinas de Añana/Gesaltza Añana | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arakaldo Arakaldo* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arama Arama* | 4 |
| Aramaio Arexola | 2 |
| Aramaio Azkoaga | 2 |
| Aramaio Barajuen | 2 |
| Aramaio Etxaguen | 2 |
| Aramaio Gantzaga | 2 |
| Aramaio Ibarra | 3 |
| Aramaio Oleta | 2 |
| Aramaio Untzilla | 2 |
| Aramaio Uribarri | 2 |
| *Arantzazu Arantzazugoiti* | 2 |
| *Arantzazu Olarra* | 2 |
| *Arantzazu Zelaia* | 3 |
| *Areatza Areatza* | 4 |
| *Areatza Launtzain* | 2 |
| *Areatza Uparan* | 2 |
| *Aretxabaleta Aozaratza* | 2 |
| *Aretxabaleta Apotzagaetxebarri* | 3 |
| *Aretxabaleta Areantza* | 4 |
| *Aretxabaleta Arkarazo* | 4 |
| *Aretxabaleta Galartza* | 4 |
| *Aretxabaleta Goroeta* | 2 |
| *Aretxabaleta Izurieta* | 3 |
| *Aretxabaleta Larrino* | 3 |
| *Aretxabaleta Oro* | 3 |
| Armiñón Armiñón | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Armiñón Estavillo | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Armiñón Lacorzana | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Aletxa* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Apellániz / Apilaiz* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Arenaza/Areatza* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Atauri* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Azazeta* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Cicujano/Zekuiano* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Ibisate* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Korres* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Leorza/Elortza* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Maeztu/Maestu* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Musitu* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Onraita/Erroeta* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Róitegui/Erroitegi* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| *Arraia-Maeztu Sabando* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Vírgala Mayor / Birgaragoien* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arraia-Maeztu Vírgala Menor / Birgarabarren* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Arrankudiaga-Zollo Arene* | 4 |
| *Arrankudiaga-Zollo Aspiuntza* | 2 |
| *Arrankudiaga-Zollo Uribarri* | 3 |
| *Arrankudiaga-Zollo Zollo-Elexalde* | 3 |
| *Arrankudiaga-Zollo Zuloaga* | 2 |
| *Arrasate/Mondragón Bedoña* | 4 |
| *Arrasate/Mondragón Garagartza* | 4 |
| *Arrasate/Mondragón Gesalibar* | 2 |
| *Arrasate/Mondragón Meatzerreka* | 3 |
| *Arrasate/Mondragón Udala* | 4 |
| *Arratzu Barroeta* | 2 |
| *Arratzu Barrutia* | 2 |
| *Arratzu Elexalde* | 2 |
| *Arratzu Gorozika* | 2 |
| *Arratzu Loiola* | 3 |
| *Arratzu Monte* | 2 |
| *Arratzu Uarka* | 2 |
| *Arratzu Zabala-Belendiz* | 2 |
| *Arratzu Zubiate* | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia Arroiabe | 3 |
| Arratzua-Ubarrundia Arzubiaga | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia Betolaza | 3 |
| Arratzua-Ubarrundia Durana | 4 |
| Arratzua-Ubarrundia Landa | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia Luko | 4 |
| Arratzua-Ubarrundia Mendibil | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia Nanclares de Ganboa/Langara Ganboa | 4 |
| Arratzua-Ubarrundia Ullíbarri-Gamboa | 4 |
| Arratzua-Ubarrundia Ziriano | 2 |
| Arratzua-Ubarrundia Zurbano/Zurbao | 4 |
| *Arrieta Agirre* | 2 |
| *Arrieta Jainko-Oleaga* | 2 |
| *Arrieta Libao* | 2 |
| *Arrieta Olatxua-Olabarri* | 2 |
| *Arrigorriaga Agirre* | 3 |
| *Arrigorriaga Martiartu* | 4 |
| Artea Bildosola | 2 |
| Artea Elexabeitia | 2 |
| Artea Esparta | 2 |
| Artea Herriko Plaza | 4 |
| Artea Sarasola | 2 |
| Artea Ugarte | 3 |
| *Artzentales Gorgolas* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Artzentales San Miguel de Linares* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Artzentales Santa Cruz* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Artzentales Traslaviña* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| *Artzentales Traslosheros* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Artziniega Artziniega | 3 |
| Artziniega Campijo | 2 |
| Artziniega Gordeliz | 2 |
| Artziniega Mendieta | 2 |
| Artziniega Retes de Tudela/Erretes Tudela | 2 |
| Artziniega Santa Koloma | 2 |
| Artziniega Sojoguti/Soxoguti | 2 |
| Asparrena Albeiz/Albéniz | 3 |
| Asparrena Ametzaga Asparrena | 3 |
| Asparrena Andoin | 2 |
| Asparrena Araia | 4 |
| Asparrena Arriola | 3 |
| Asparrena Egino | 2 |
| Asparrena Gordoa | 2 |
| Asparrena Ibarguren | 4 |
| Asparrena Ilarduia | 3 |
| Asparrena Urabain | 3 |
| *Asteasu Asteasu* | 4 |
| *Asteasu Beballara* | 3 |
| *Asteasu Elizmendi* | 3 |
| *Asteasu Errekaballara* | 2 |
| *Asteasu Goiballara* | 3 |
| *Asteasu Upazan* | 2 |
| *Astigarraga Santiagomendi* | 4 |
| *Ataun Aia* | 2 |
| *Ataun San Gregorio* | 2 |
| *Ataun San Martin* | 3 |
| *Atxondo Apatamonasterio* | 4 |
| *Atxondo Arrazola* | 2 |
| *Atxondo Marzana* | 2 |
| *Atxondo Olazabal* | 2 |
| *Atxondo San Juan* | 2 |
| *Atxondo Santiago* | 3 |
| *Aulesti Aulesti* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Aulesti Goierri | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Aulesti Ibarrola* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Aulesti Malats | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Aulesti Narea* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Aulesti San Anton* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Aulesti Urriola | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| *Aulesti Zubero* | 1 (Arreta Bereziko Eremuak) |
| Ayala/Aiara Agiñaga | 2 |
| Ayala/Aiara Añes | 2 |
| Ayala/Aiara Arespalditza/Respaldiza | 3 |
| Ayala/Aiara Beotegi | 2 |
| Ayala/Aiara Costera/Opellora | 2 |
| Ayala/Aiara Erbi | 2 |
| Ayala/Aiara Etxegoien | 2 |

| Udalerria erakundea, dibertsifikazio ekonomikoaren maparen arabera | Kalteberatasun maila |
|---|---|
| Ayala/Aiara Izoria | 3 |
